




HTC HD7

erabiltzailearen
eskuliburua



htc
quietly brilliant

Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua



Eskuliburu honetan erabilitako sinboloak

Gida honetan, sinbolo hauek erabiliko ditugu informazio garrantzitsua eta erabilgarria adierazteko:



Hau ohar bat da. Informazio gehiago eman dezakezu, eta hura egoera jakin batzuetan aplikatuko da. Berariazko funtzio bat xehetasun gehiagoz azaldu dezakezu.



Hau informazio garrantzitsua da. Zeregin bat egiteko edo ezaugarri batek egokiro funtzionatzeko jakin behar dituzunak.



Hau aholku bat da. Zerbait egiteko beste modu bat azaldu dezakezu, edo erabilgarri izan dakioken aukera berezi bat erakutsi.



Segurtasun-ezaugarri bat da. Irakurri arretaz, zure telefonoan arazorik ez izateko.

Informazio gehiago?

Beste laguntza-iturri batzuetara jo nahi izanez gero: www.htc.com/support. Irakurri legeei eta segurtasunari buruzko informazioa duen gida.

Zure telefonoari buruzko informazio gehiago izateko: windowsphone.com.

Oharra: Baliteke Microsoften zenbait funtzio/zerbitzu erabilgarri ez egotea zure herrialdean edo eskualdean.

Edukiak

Oinarrizko kontzeptuak

Paketearen edukia	6
Zure telefonoa	6
Beheko estalkia	8
SIM txartela	9
Bateria	10
Telefonoa piztea eta itzaltzea	11
Zure PINa sartzea	12
Hatzaren mugimenduak	12
Euskarria erabiltzea	12

Lehen urratsak

Telefonoa lehen aldiz konfiguratzea	13
Hasierako pantaila	13
Aplikazioetara eta doikuntzetara sartzea	14
Hub-ak	14
Modu etena	14
Pantaila desblokeatzea	15
Blokeo-pantailaren atzealdea aldatzea	15
Egoera-ikonoak	16
Bolumena doitzea	16
Bilatzea	17
Telefonoarekin interakzioan ibiltzea, hitz eginez	17
Kontu bat konfiguratzea	17
Txirrin-tonua aldatzea	18
Gaia aldatzea	18

Telefono-deiak

Deiak egitea	19
Deia jasotzea	20
Sarrerako deien aukerak erabiltzea	20
"Llamadas" aukera erabiltzea	22
Dei-zerbitzuak	23
Hegazkin modua aktibatzea edo desaktibatzea	23

Kontaktuak

Contactos hub-ari buruzko informazioa	24
Zure kontaktu-zerrenda eta feed-ak ikustea	24
Kontaktu berri bat gehitzea	25
Zure SIM txarteletik kontaktua inportatzea	26
Kontaktuaren informazioa konbinatzea	26
Editatzea, bilatzea eta ezabatzea	26
Zure Yo tesela	27

4 Edukiak

Teklatua

Teklatua pantailan erabiltzea	29
Testu prediktiboa duten hitzak idaztea	30
Teklatuaren doikuntzak aldatzea	30

Mezuak

Mensajes-i buruz	31
Testu-mezu bat bidaltzea	31
Irudia duten mezuak bidaltzea	32
Mezuak ikustea eta horiei erantzutea	32
Mezu-elkarrizketak kudeatzea	33

Posta elektronikoa

POP3/IMAP posta elektronikoko kontu bat gehitzea	34
Microsoft Exchange Server-eko kontu bat eranstea	34
Sarrerako ontzia begiratzea	35
Mezu elektronikoak bidaltzea	36

Egutegia

Egutegiari buruz	39
Egutegiko hitzordu bat sortzea	39
Egutegiko ikuspegiak aldatzea	40
Hitzordu bat ikustea, editatzea edo ezabatzea	41
Hitzorduen gogorarazpenak ikustea, baztertzea edo atzeratzea	41
Egutegiak bistaratzea eta sinkronizatzea	42

Konexioa nola egin

Datu-konexioa	43
WiFi-a	44
Zure telefonoko web nabigatzailea erabiltzea	45
Bluetooth-a	48

Kamera

Kameraren oinarritzko alderdiak	50
Argazkia ateratzea	51
Bideo bat grabatzea	51
Argazkia atera edo bideoa grabatu eta gero	52
Kameraren konfigurazioa	52

Irudiak

Imāgenes hub-ari buruzko informazioa	53
Argazkiak eta bideoak ikustea	54
Argazkiei ukituak ematea	54
Argazkiak bidaltzea	54
Argazkiak Interneten partekatzea	55

Zune

Zure ordenagailua eta telefonoa sinkronizatzea	56
Música + Vídeos hub-a	57
Musika entzutea	57
Bideoak ikustea	58
Podcast-ak entzutea edo ikustea	58
Irratia entzutea	58

Mapak eta kokapena

Kokapen-zerbitzuak aktibatzea	59
Bing Maps	59

HTC Hub

HTC Hub-i buruz	63
-----------------	----

Aplikazio gehiago

Microsoft Office Mobile 2010	68
Windows Marketplace	69
Jokoak	69

Segurtasuna

SIM txartela PIN batekin babestea	70
Telefonoa pasahitzarekin babestea	71
Telefonoa webgunetik babestea	71

Doikuntzak

Zure telefonoaren doikuntzak	72
Pantailaren doikuntzak aldatzea	73
Pantailaren doikuntzak aldatzea	73
Zure telefonoari buruzko informazioa egiaztatzea	74
Telefonoaren hizkuntza aldatzea	74

Eguneratzea eta berrezartzea

Telefonoaren softwarea eguneratzea	75
Telefonoa berrabiaraztea edo fabrikako berrezarpena egitea	75

Marka komertzialak eta eskubide intelektualak 77**Aurkibidea** 78

Oinarrizko kontzeptuak


Paketearen edukia

Paketearen barruan, honako hauek aurkituko dituzu:


- Telefonoa
- Bateria
- USB-ko kablea
- Entzungailu estereoa, 3,5 mm-koa
- Korrante-egokigailua
- Bizkor hasteko gida
- Eskuliburu azkarra
- Lege-informazioa eta segurtasun-informazioa dituen gida

Zure telefonoa

Aurreko panela




Goiko panela




- 1 Audio-larakoa, 3,5 mm-koa
- 2 USBa
- 3 Mikrofonoa

Eskuineko panela



- 1 BOLUMENA IGO/JAITSI
- 2 KAMERA

Atzeko panela




- 1 LED dualeko flash
- 2 Atzeko estalkia
- 3 5 megapixelesko kamera
- 4 Bozgorailua
- 5 Euskarria

Beheko estalkia

Atzeko tapa atera


Kendu atzeko estalkia bateriaren kokalekua eta SIM txartelaren zirikaria ikusteko.

1. Telefonoa itzalita duzula, heldu tinko telefonoari, aurrealdea beherantz jarrita.
2. Erpuruaren edo beste hatz baten laguntzaz, kendu telefonoaren goialdeko irekidura txikiaren atzeko estalkia.



Jarri atzeko estalkia berriro.

1. Lehenbizi, jarri atzeko estalkiaren behealdeko irtenguneak bateriaren kokalekuaren barruko zuloen gainean.



2. Sakatu alboak eta atzeko taparen goiko zatia, tapa bere lekuan sartuta gera dadin. Estalkia leku egokian dagoenean, klik bat entzungo duzu.

SIM txartela


SIM txartelean daude zure telefono-zenbakia, zerbitzuari buruzko datuak eta telefonoaren/mezuen agendaren memoria. Zure telefonoak bi SIM txartelak onartzen ditu: 1,8 V eta 3 V



Baliteke zure gailuarekin SIM txartela batzuk ez ibiltzea. Halakoetan, kontsultatu operadore mugikorrari, SIM txartela aldatzeko. Zerbitzu hori agian ez da doakoa izango.

SIM txartela sartzea

1. Kendu atzeko tapa Irakurri "Atzeko tapa kentzea".
2. Atera bateria. Irakurri "Bateria".
3. Sartu SIM txartela, urre-koloreko kontaktuak beherantz dituela eta moztutako erpina kanpoalderantz duela.
4. Lerratu SIM txartela barrualderantz



SIM txartela kentzea

1. Kendu atzeko tapa Irakurri "Atzeko tapa kentzea".
2. Atera bateria. Irakurri "Bateria".
3. Sakatu SIM txartela hatzaz, eta atera ezazu.

Bateria


Zure telefonoaren bateria kargatu daiteke. Telefonoarekin batera eman dizkizuten bateria eta osagarriak baino ezin dituzu erabili, edo, bestela, gomendatzen dizkizugun ordezkoak.

Telefonoa nola erabiltzen duzun, aldatu egingo da kargatu aurreko bateriaren iraupena. Erabilera horiek telefonoaren zeregin eta osagarriei dagozkie (adibidez, Bluetooth konexioa beti piztuta uzteak energia gehiago kontsumitzen du). Telefono-dei luzeek eta Interneten maiz ibiltzeak ere bateriaren energia asko kontsumitzen dute. Halaber, haren kokalekua ere hartu behar duzu kontuan: Zure sare mugikorraren seinale-intentsitatea baxua bada edo oso tenperatura altua badago, bateriak lan gehiago egin behar du.

Bateria sartzea

1. Kendu atzeko tapa Irakurri "Atzeko tapa kentzea".
2. Lehenbizi, sartu bateria telefonoan, kobrezko kontaktuak agerian daudela: egiaztatu zinta bateriaren karkasatik ateratzen dela, hura errazago ateratzeko.


Bateria telefonoan sartutakoan, kobrezko kontaktuek ezkerraldean egon behar dute.



3. Gero, kontu handiarekin, jarri bateria dagokion lekuan.

Bateria kentzea

1. Ziurtatu telefonoa itzalita dagoela.
2. Kendu atzeko tapa Irakurri "Atzeko tapa kentzea".
3. Bateria ateratzeko, egin tira zintatik.




Bateria kargatzea

Telefonoa saltzen denean, bateria zertxobait kargatuta egoten da. Gailua piztu eta erabiltzen hasi aurretik, komeni da bateria kargatzea. Zenbait bateriak hobeto funtzionatzen dute kargatze- eta deskargatze-ziklo oso bat baino gehiago egin ondoren.



- Bateria kargatzeko, telefonoarekin batera eman dizkizuten korrante altemoaren egokigailua eta USB-kablea baino ez erabili.
- Ez kendu bateria telefonoari, korrante altemoaren egokigailuarekin edo autokoarekin kargatzen ari den bitartean.

1. Konektatu USB-kablearen mutur zabala korrontearen egokigailura.
2. Konektatu USB-kablearen mutur txikia telefonoari.



3. Bateria kargatzen hasteko, konektatu korrontearen egokigailua hartune elektrikorara. Bateria kargatzen ari den bitartean ere piztu daiteke telefonoa.

Bateria kargatzen den bitartean, jakinarazteko LEDak argi gorri finko bat agertuko du. Telefono guztiz kargatu denean, argi berde finko bat piztuko da.

Telefonoa piztuta dagoela kargatzen baduzu bateria,  bateria kargatzeko ikonoa azalduko da hasierako pantailaren barran. Bateria guztiz kargatuta dagoenean, bateria beteta dagoela adierazten duen  ikonoa agertuko da hasierako pantailan.



Segurtasun-neurri gisa, bateriak kargatzeari uzten dio, gehiegi berotzen denean.

Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa piztea

Sakatu PIZTEKO botoia. Erraza da.



Telefonoa lehen aldiz pizten duzunean, konfiguratzeko eskatuko dizu. Joan “Telefonoa lehen aldiz konfiguratzea” atalera, eta jarraibideak izango dituzu han.

Telefonoa itzaltzea

1. Pantaila itzali egiten bada, sakatu PIZTEKO botoia, hura pizteko.
2. Blokeatzeko pantaila agertzen bada, desblokeatu zure telefonoa. Ikusi “Pantaila desblokeatzea” atala “Lehen urratsak” kapituluan.
3. Sakatu PIZTEKO botoia segundo batzuetan, pantailan “Adiós” hitza agertu arte.

Zure PINa sartzea

SIM txartel gehienak aurrez konfiguratuta daude, PIN batekin (identifikazio-zenbaki pertsonala). Operadore mugikorrek ematen du PIN hori. Telefonoak PIN bat eskatzen badizu, hura sartu, eta sakatu Intro.

PIN kodea nola aktibatu, desaktibatu edo aldatu jakiteko, irakurri “Zure SIM txartela PIN batez babestea” atala “Segurtasuna” kapituluan.




PIN kodea hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egingo da. Ez dago arazorik. Zure operadorearekin harremanetan jarri besterik ez duzu, eta PUKa emango dizu (PINa desblokeatzeko tekla).

Hatzaren mugimenduak

Sakatzea (hatzarekin)	Teklatua erabiliz idatzi nahi duzunean, hautatu pantailako elementuak, hala nola aplikazioak eta doikuntzak, edo sakatu pantailako botoiak; hatzarekin ukitu besterik ez duzu egin behar.
Segundo batzuetan sakatzea	Elementu batentzat eskuragarri dauden aukerak irekitzeko (adibidez, kontaktu bat edo web-orri baten esteka), sakatu elementu hori segundo batzuetan.
Mugitzea edo lerratzea	Mugitzeak edo lerratzeak esan nahi du hatza pantailan –gora eta behera edo ezker-eskuin– arin arrastatzea.
Arrastatzea	Arrastatzeari ekin aurretik, sakatu hatzarekin segundo batzuetan. Hatza mugitzen hasita, ez altxatu nahi duzun lekura iritsi arte.
Ukituak egitea	Kasu horretan, ukitu txikiak, azkarrak eta arinak egin behar dira hatzarekin. Keinu hori gora edo behera egiten da beti, kontaktuen artean edo mezu-zerrendan begiratzen denean bezala.
Biratzea	Pantaila gehienetan, pantailaren norabidea automatikoki alda daiteke, horizontaletik bertikalera, telefonoa alboetara biratuz. Testua sartzean, telefono alboetara biratu dezakezu, teklatu handiagoa erabiltzeko.
Konprimatzea	Zenbait aplikaziotan, hala nola Irudienean eta web-nabigatzailean, konprimatu egin dezakezu pantaila, bi hatz erabiliz (adibidez, erpurua eta erakuslea)

Euskarria erabiltzea

Eroso eseri, eta film bat ikusi nahi duzu? Edo telefono bidezko konferentzia egin nahi duzu, telefonoari eutsi beharrik gabe? Ez dago arazorik. Euskarria kanpoalderantz atera, telefonoa gainazal lau batean jarri, eta gozatu!



Lehen urratsak


Telefonoa lehen aldiz konfiguratzea

Telefonoa lehen aldiz piztean, zenbait aukera konfiguratzeko eskatuko dizu, hala nola zur ordu-eremua eta Windows Live-ren IDa. Bete pantailako jarraibideak, eta segundo gutxi batzuetan martxan egongo da zure telefonoa.

Hasierako pantaila

Teselei hasierako pantailatik bertatik begiratu diezaiekezu; etengabe eguneratzen dira tesela horiek, eta zuretzako gairik garrantzizkoenak erakusten dituzte. Besteak beste, zure argazki-bilduma, XBOX LIVEa, mezu berriak, etab. ikus ditzakezu.

Hatza gora edo behera lerratu besterik ez duzu, hasierako pantailako tesela batetik bestera ibiltzeko.



Hasierako pantailako teselak berriro antolatzea

1. Sakatu segundo batzuetan mugitu nahi duzun tesela, hura flotatzen ikusi arte.
2. Arrastatu tesela nahi duzun tokiraino. Gelditu pantailaren goiko edo beheko ertzean, eta arrastatu tesela hasierako pantaila handituta.
3. Tesela zuka nahi duzun tokian dagoenean, ukitu tesela, hura konektatzeko.

Elementuak hasierako pantailan finkatzea

Hasierako pantailan edozer finka dezakezu: aplikazioak, irudiak, abestiak, zuzeneko sarbideak eta kontaktuak. Adibidez, hasierako pantailan kontaktu bat finkatzen baduzu, pertsona horri buruzko eguneraketa guztiak ikusi ahal izango dituzu: feedak, posta elektronikoa, testu-mezuak eta deien jakinarazpenak... guztiak ere tesela horretatik.

Zerbait hasierako pantailan finkatzeko (adibidez kontaktu bat), sakatu segundo batzuez, menua agertu arte, eta sakatu "Anclar a Inicio".

Tesela batean finkatutakoa ezabatzea


Hasierako pantailan, sakatu segundo batzuetan kendu nahi duzun tesela, eta, gero, ukitu .

Aplikazioetara eta doikuntzetara sartzea

Erraza da. Hasierako pantailan,  sakatu besterik ez duzu, edo hatza ezkererantz lerratu.

Hub-ak

Sinplifikatu zure eguneroko zereginak hub-ekin. Zenbait aplikaziotara sartzen eta irteten aritu beharrean, hub-ek zereginak sinplifikatzen dituzte, bat datozen esperientziak elkartzen baitituzte. Esaterako, Contactos hub-ean kontaktu guztiak ikusiko dituzu, eta, halaber, Facebook-eko zure lagunen egoera-eguneraketak ere ikusiko dituzu. Ikusi zure telefonoak dituen gainerako hub-ak; esaterako, Office, Imágenes, Música+Vídeos, etab.



Modu etena

Modu etenean dagoenean, telefonoa energia gutxi kontsumitzen duen egoeran dago, pantaila itzalita baitago bateria aurrezteko. Gainera, modu honetan ez dugu botoi bat nahi gabe sakatuko telefonoa zorroan edo poltsikoan daramagunean. Baina, mezuak eta deiak jasotzen jarraituko dugu.

Modu etenera aldatzea


Sakatu PIZTEKO botoia pantaila desaktibatzeke eta telefonoa modu etenera aldatzeko. Telefonoa automatikoki aldatuko da modu etenera denbora-tarte batean erabiltzen ez bada.

Modu etenetik aktibatzea

Telefonoa automatikoki aktibatzen da sarrerako dei bat jasotzean. Telefonoa eskuz aktibatzeko, sakatu PIZTEKO botoia. Pantaila desblokeatu behar duzu.

Pantaila desblokeatzea



Blokeo-pantaila ikustean, sakatu pantailaren beheko alde, eta lerratu hatza gorantz pantaila desblokeatzeko edo sarrerako dei bati erantzuteko.



Telefono pasahitza konfiguratu baduzu, pasahitza sartu behar duzu pantaila desblokeatzeko. Telefonoaren pasahitza nola gaitu behar den jakiteko, ikus "Telefonoa pasahitzarekin babestea" atala "Segurtasuna" kapituluan.

Blokeo-pantailaren atzealdea aldatzea

Arakatu zure telefonoaren atzealde-bilduma, edo aukeratu kamerarekin ateratako argazkien artean.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Bloquear y fondo de pantalla > Cambiar fondo de pantalla**.
3. Hautatu **aurrez ezarrita dauden atzealde**en artetik, **kamerako argazkien** artetik edo **argazki-album batetik** egingo duzun aukeraketa.
4. Hautatu blokeo-pantailaren atzealde gisa ezarri nahi duzun argazkia.
5. Hautatu duzun argazkia mahaigainaren atzealdea baino handiagoa bada, moztu argazkia. Arrastatu argazkia, eta jarri atzealdea izatea nahi duzun zatia mozteko laukiaren barruan. Ondoren, ukitu .

Egoera-ikonoak

Zure telefonoari buruzko gauza asko ikas ditzakezu egoera-barrako ikonoei begiratuta.

Egoera-ikonoak agertzeko, pantailaren goiko aldean ukitu besterik ez duzu egin behar. Egoera-ikonoak desagertu egingo dira segundo batzuk igaro ondoren.



Hemen daude ikusiko dituzun zenbait ikono eta haien esanahia:

	Seinalearen intentsitatea	3G	3G konexioa
	Bateria kargatzen ari da	G	GPRS konexioa
	Bateria beteta dago	E	EDGE konexioa
	Bateriaren egoera ezezaguna da	H	HSPA konexioa
	Hegazkin modu aktibatuta dago		WiFi-a gaituta dago, baina ez dago WiFi sare batera konektatua
	Ez dago SIM txartelik sartuta		WiFi sarera konektatuta dago
	SIM txartela blokeatuta dago		Bluetooth entzungailu batera konektatuta dago
	Desplazamendua		Telefonoa bibrazio moduan konfiguraturuta dago
	Deiak sarearen konfigurazioaren arabera desbideratzen dira.		Telefonoa isilik moduan konfiguraturuta dago

ikurrak konexioaren egoera soilik erakusten du, eta ez seinalearen intentsitatea. WiFi seinalearen intentsitatea nola ikusi jakiteko, ikus "Konexioa nola egin" kapituluko "WiFi" atala.

Bolumena doitzea


Sakatu BOLUMENA IGOTZEKO edo BOLUMENA JAISTEKO botoiak bolumen-maila doitzeko. Pantailaren goiko aldean ageri da bolumen-barra, eta bolumen-maila erakusten du.



Bolumen-barran, ukitu eskuineko ikonoa soinu modura edo bibrazio modura azkar aldatzeko. Isilik modua ezartzeko, bibrazio modua itzali behar duzu telefonoan. Bibrazio modua nola itzali jakiteko, ikus "Soinuaren doikuntzak aldatzea" atala "Konfigurazioa" kapituluan.

Bilatzea

Webean bilatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu BÚSQUEDA. Bing bilaketa-pantaila irekiko da.
2. Ukitu bilaketa-laukia, sartu bilatu nahi duzuna, eta ukitu  teklatuan. Bat datozen elementuen zerrenda ikusiko duzu pantailan.
3. Ukitu bilaketa-laukiaren azpiko kategorian (esaterako, "Local") edo lerratu pantailan ezkerrerantz edo eskuinerantz, beste kategorietako emaitzak ikusteko.



Erabili ahotsa bilaketa egiteko. Horretarako, ukitu bilaketa-laukiaren barruan dagoen mikrofonoaren ikonoa.

Aplikazio baten barruan bilatzea

Zenbait aplikaziotan (Kontaktuak, Mapak, Merkatua...) bilaketa egin dezakezu aplikazioaren barruan. Aplikazioa ireki, eta BÚSQUEDA sakatu behar duzu.


Telefonoarekin interakzioan ibiltzea, hitz eginez

Zure telefonoaren edozein tokitatik, sakatu segundo batzuek INICIO "Tell Me" irekitzeko. Programa horri eskera, ahotsa erabil dezakezu deiak egiteko, aplikazioak irekitzeko eta webean bilaketak egiteko.

- Dei bat egiteko, hau esan behar duzu: "Llamar a Ainhoa Aranburu, móvil".
- Aplikazio bat irekitzeko (esaterako, Egutegia), esan "Abrir Calendario".
- Zerbait bilatzeko, nahi duzun telefonoa esan behar duzu (adibidez: "Buscar pizzerías"), eta Bing-ek erantzuna bilatuko du.
- Ez bazaude ziur, esan "¿Qué puedo decir?"


Kontu bat konfiguratzea

Konfiguratu Windows Live, Microsoft Outlook, Facebook edo beste kontu batzuk informazioa sinkronizatzeko eta kontu horietako eguneraketak zure telefonoan jasotzeko.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Correo electrónico y cuentas**.
3. Ukitu **Agregar una cuenta**, eta, gero, ukitu konfiguratu nahi duzun kontu-mota.
4. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza, eta, ondoren, ukitu **Iniciar sesión**.

Txirrin-tonua aldatzea

Aukeratu telefonoan erabilgarri dauden txirrin-tonuen arteko bat.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Tonos de timbre y sonidos**.
3. Ukitu **Tono** laukia.
4. Txirrin-tonu bat entzuteko, ukitu tonuaren izenaren ondoan dagoen erreprodukzio-irudia.
- 5 Ukitu erabili nahi duzun txirrin-tonuaren izena.

Gaia aldatzea

Triste al zaude? Telefonoaren gaia alda dezakezu telefonoa zure gogo-aldartera egokitzeko.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Tema**.
3. Hautatu **Atzealdea** eta **Enfasi-kolorea** telefonoa zure gogo-aldartera egokitzeko. Horretarako, ukitu dagozkien laukiak.

Telefono-deiak

Deiak egitea



SIM txartel gehienak aurrez konfiguratuta daude, PIN batekin (identifikazio-zenbaki pertsonala). Operadore mugikorrek ematen du PIN hori. Telefonoak PIN bat eskatzen badizu, hura sartu, eta sakatu **Acceptar**.

PIN kodea hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egingo da. SIM txartela desblokeatzeko, ikus "Segurtasuna" kapituluko "Blokeatuta dagoen SIM txartel bat berrezartzea" atala.

1. Hasierako pantailan, ukitu **Telefóno** tekla.



2. Ukitu .
3. Markatu hartzailearen telefono-zenbakia, eta ukitu **Llamar**.

Larrialdi-dei bat egiteko

Zure telefonotik larrialdi-deiak egin ditzakezu SIM txartela instalatuta egon gabe edo SIM txartela blokeatuta egonda ere.

1. Telefonoa SIM txartelirik gabe piztu ondoren, ukitu **Llamada SOS** pantailan.



Cerrar ukitu baduzu pantailan, oraindik aukera duzu telefonoko markatzailea irekitzeko. Horretarako, ukitu hasierako pantailako Telefóno tekla, eta, gero, ukitu .

2. Markatu zure herrialdeko larrialdietako nazioarteko zenbakia (adibidez: 911), eta, gero, ukitu **deitzeko** tekla.




Larrialdi-zenbaki gehiago sar ditzakezu SIM txartelean. Informazio gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure mugikorreko operadorearekin.

Pantaila-blokeoa edo SIMaren blokeoa gaitu baduzu eta SIM txartelaren PINa ahaztu baduzu, aukera izango duzu larrialdi-deiak egiteko, pantailan **Llamada SOS** ukituta.

Deiak jasotzea

Kontaktu baten telefono-deia jasotzen duzunean, sarrerako deien pantaila agertuko da, eta deia egin duenaren datu hauek agertuko dira: ID-ikonoa, izena eta telefono-zenbakia. Kontaktuetan ez dagoen norbaiten telefono-deia jasotzean, sarrerako deia pantailan deia egiten duenaren ID-ikono lehenetsia eta telefono-zenbakia agertuko dira.

Deiari erantzutea edo ez onartzea



Baldin eta...	Dei bat erantzuteko	Deia ez onartzeko
Pantaila desaktibatuta badago	Ukitu Respuesta .	Ukitu Ignorar .
Pantaila itzalita badago	Blokeo-pantaila agertzen denean, arrastatu hatza gorantz blokeo-pantailaren beheko aldetik, eta gero ukitu Respuesta .	Blokeo-pantaila agertzen denean, arrastatu hatza gorantz blokeo-pantailaren beheko aldetik, eta gero ukitu Ignorar .

Txirrin-soinua isiltzea deiari uko egin gabe

Aukeratu hauen artean:

- Sakatu BOLUMENA IGOTZEKO/JAISTEKO botoia.
- Sakatu PIZTEKO botoia.
- Jarri telefonoa buruz bera lurzoru berdindu batean.



Telefonoa buruz behera badago dagoeneko, jotzen jarraituko du dei bat baino gehiago sartzen badira jarraian.

Sarrerako deien aukerak erabiltzea

Hitz egiten ari zaren bitartean, erabili pantailako botoiak mikrofonoa isiltzeko edo berriro aktibatzeko edo bozgorailua aktibatzeko edo desaktibatzeko. Bestela, hau egin dezakezu: sakatu MENUA, eta aukeratu dei bat erantsi nahi duzun, deia zain utzi nahi duzun, mikrofonoa isildu nahi duzu, etab.


Dei bat zain uztea

1. Ukitu .
2. Ukitu **En espera**. Ukitu berriro **En espera** deiari berriro ekiteko.

Deiak txandakatzea

Hitz egiten ari zarela sarrerako beste dei bat onartzen baduzu, bi deiak txandakatu ditzakezu.

1. Beste dei bat jasotzen baduzu, ukitu **contestar** bigarren deia onartzeko eta lehena zain uzteko.
2. Deiak txandakatzeko, ukitu pantailaren goiko aldean dagoen barra.




3. Uneko deia amaitzeko eta beste deiari berriro ekiteko, ukitu **Finalizar llamada**.

Telefono-konferentzia bat konfiguratzeko

Oso erraza da lagunekin, senitartekoeekin eta lankideekin konferentziak egitea. Egin (edo onartu) lehen deia, eta, gero, markatu gainerako deiak konferentziara gehitzeko.



Egiaztatu zure SIM txartelak aktibatua duela konferentzia-deien zerbitzua. Informazio gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure mugikorreko operadorearekin.

1. Deitu telefono-konferentziako lehenengo solaskideari.
2. Harekin harremanetan jarritakoan, ukitu , eta, gero, ukitu **Agregar llamada**. Ondoren, markatu bigarren solaskidearen zenbakia. Lehen solaskidea zain geldituko da bigarren solaskidearen zenbakia markatzen duzun bitartean.
3. Bigarren solaskidea konektatuta dagoenean, ukitu **Combinar llamas**.
4. Konferentzian beste solaskide bat sartu nahi baduzu, ukitu **Agregar llamada**, eta markatu telefono-konferentziara gonbidatu nahi duzun kontaktuaren zenbakia.
5. Deia konektatzen denean, ukitu **Combinar llamas** solaskidea telefono-konferentziara gehitzeko. Telefono-konferentziako lagun batekin pribatuan hitz egin nahi baduzu, ukitu **Privada**.
6. Bukatzean, sakatu **Finalizar llamada**.

Hitz egiten ari zarenean bozgorailua aktibatzea eta desaktibatzea

1. Ukitu .
2. Ukitu **Altavoz**. Bozgorailua desaktibatzeko, ukitu berriro **Altavoz**.



Bozgorailua aktibatuta badago, ez jarri telefonoa belarritik gertu. Kalte egin diezaioke zure entzumenari.

Hitz egiten ari zarenean mikrofonoa isiltzea

1. Ukitu .
2. Ukitu Silenciar. Sakatu **Silenciar** mikrofonoa berriz pizteko.

Dei bat amaitzea

Pantailan, ukitu **Finalizar Llamada**.



Telefonoaren pantaila itzalita badago, sakatu PIZTEKO tekla pantaila aktibatzeke eta **Finalizar Llamada** ukitzeko.




“Llamadas” aukera erabiltzea

Erabili Llamadas aukera dei galduak, markatutako zenbakiak eta jasotako deiak ikusteko.

Deiak ikustea Llamadas aukeran

1. Hasierako pantailan, ukitu **Teléfono** tekla.
2. Ukitu zerrendako izen bat edo zenbaki bat aukera hauek ematen dituen pantailara joateko: zenbaki horri deitzea, kontaktuaren informazioa ikustea (zenbakia kontaktu-zerrendan gordeta badago), kontaktuaren informazioa gordetzea (zenbakia ez badago kontaktu-zerrendan gordeta) edo testu-mezu bat bidaltzea.

Telefono-zenbaki bat gehitzea zure kontaktuetara Llamadas aukeratik

1. Hasierako pantailan, ukitu **Teléfono** tekla.
2. Ukitu kontaktuetan gorde nahi duzun zenbakia.
3. Hautatu  pantailaren behealdean.
4. Sakatu **kontaktu berri bat**.
5. Beharrezkoa bada, editatu zenbakia, hautatu telefono-zenbaki mota, eta, gero, ukitu .
6. Idatzi kontaktuaren izena eta gainerako informazio garrantzitsua. Telefono-zenbakia automatikoki erantsiko da.
7. Ukitu .




Kontaktu berriak nola erantsi edo kontaktuen informazioa nola editatu jakiteko, ikus Kontaktuak kapitulua.

Llamadas aukerako zerrenda ezabatzea

Llamadas pantailan, hauek egin ditzakezu:

- Zerrendako izen edo zenbaki bat kentzeko, sakatu segundo batzuek izena edo zenbakia, eta, gero, ukitu **Eliminar elemento**.
- Zerrenda osoa ezabatzeko, ukitu..., eta, gero, ukitu **Eliminar todo**.



Dei-zerbitzuak


Zure telefonoa egunero konektatu daiteke telefono mugikorren sarera, eta aukera emango dizu zure gailuaren zenbait telefono-zerbitzutarara sartzeko eta zerbitzu horien doikuntzak aldatzeko. Dei-zerbitzuen barruan sartzen dira deiak desbideratzeko aukera, dei zain uzteko aukera, ahots-postontzia... Jarri harremanetan zure mugikorreko operadorearekin zure telefonoko dei-zerbitzuen erabilgarritasunari buruzko informazioa eskuratzeko.

Dei-zerbitzuak irekitzeko, ukitu **Teléfono** tesela hasierako pantailan, ukitu..., eta, gero, ukitu **Configuración de llamada**.

Mi número de teléfono	Zure telefono-zenbakia erakusten du.
Número del correo de voz	Erabiltzen den ahots-postontziaren zerbitzua erakusten du. Ukitu bertan ahots-postontziaren zenbakia aldatzeko.
Mostrar mi id. de llamada a:	Ukitu laukia ezartzeko zeinek ikus dezakeen zure telefono-zenbakia zuk deitzen duzunean.
Desvío de llamadas	Aktibatu edo desaktibatu deiak desbideratzeko aukera. Deiak desbideratzeko aukera aktibatzen duzunean, deiak zein telefono-zenbakira desbideratu nahi dituzun adierazi behar duzu.
Asistencia internacional	Aktibatu edo desaktibatu nazioarteko laguntza.
Seguridad de la SIM	Xehetasun gehiago eskuratzeko, ikus "Segurtasuna" kapituluko "Zure SIM txartela PIN batez babestea" atala.

Hegazkin modua aktibatzea edo desaktibatzea

Herrialde askotan, hegazkinean telefonoa itzali egin behar dela agintzen du legeak. Telefono-funtzioa desaktibatzeke modu bat da **hegazkin modura** aldatzea. Hegazkin modua gaitzean, zure telefonoaren haririk gabeko irrati guztiak desaktibatu egingo dira, dei-funtzioa, datu-zerbitzuak, Bluetooth-a eta WiFi-barne.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Modo avión**.
3. Ukitu **egoeraren** etengailua itzaltzeko edo pizteko.



Hegazkin modua desgaitzen duzunean, dei-funtzioa aktibatuko da berriro, eta Bluetooth-aren eta WiFi-aren aurreko egoera ezarriko da berriro.

Kontaktuak

Contactos hub-ari buruzko informazioa


Posta elektronikoa eta beste kontu batzuk konfiguratzen dituzunean zure telefonoan, kontaktuak automatikoki eguneratzen dira Contactos hub-etik. Windows Live-ko, Facebook-eko eta posta elektronikoko beste kontu batzuetako (esaterako, Google eta Outlook) kontaktuak ikusi ahal izango dituzu (Microsoft Exchange ActiveSync).

Windows Live-ko eta Facebook-eko zure lagunen feed-ak ere agertuko dira Contactos hub-ean. Irudiak hub-ean agertzen dira lagunen argazkiak, eta haien feed-ak Yo teselan.


Orain ez baduzu konfiguratuta zure posta elektronikoko kontua edo Facebook-eko kontua, ikus "Lehen urratsak" kapituluko "Kontu bat konfiguratzea" atala.

Zure kontaktu-zerrenda eta feed-ak ikustea

Contactos hub-a irekitzeko, ukitu Contactos tesela hasierako pantailan.



Contactos hub guztietan, zure telefonoan ikusiko dituzu sortu dituzun kontaktu guztiak, bai eta posta elektronikoko kontuekin eta Facebook-ekin sinkronizatzen direnak ere.



Zure Windows Live-ko eta/edo Facebook-eko kontuan saioa hasi baduzu, lerratu hatza ezkererantz, zure lagunen eguneratzeak ikusteko.



Telefonia lehen aldiz konfiguratu zenuenean saioa hasi bazenuen zure Windows Live-ko kontuan, kontu horretako kontuak agertuko dira kontaktuen zerrendan, Contactos irekitzen duzunean.

Kontaktuei buruzko informazioa


Kontaktu bat ukitzen duzunean Contactos pantailan, kontaktuaren xehetasun-pantaila zabalduko da, eta pertsona horri buruzko kontaktu-datuak agertuko dira. Profilaren pantailatik, dei bat egin edo testu bat nahiz mezu elektronikoa bidali diezaiokizu kontaktuari.



Deitu eta bidali SMS bat edo mezu elektronikoa kontaktu horri, profilaren pantailatik. Kontaktu horren berrikuntzak ikusteko, lerratu hatza ezkererantz. Zure Windows Live-ko eta/edo Facebook-eko kontuetan saioa hasten duzunean ikusi ahal izango dituzu eguneratzeak, bai eta pertsona hori Windows Live-ko eta/edo Facebook-eko laguna baduzu ere.



Kontaktu berri bat gehitzea

1. Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** tesela.




2. Contactos hub **guztietan**, ukitu .
3. Hautatu **kontua**; adibidez, **Windows Live**. Aukera horrekin, kontaktua zein konturekin sinkronizatuko den zehazten da.
4. Sartu informazioa, elementu bat ukituta.
5. Ukitu  bukatu duzunean.

Zure SIM txarteletik kontaktua inportatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** tesela.
2. Contactos hub **guztietan**, ukitu **Importar contactos SIM**.
Konturen bat lehendik konfiguratua baduzu, sakatu segundo batzuetan kontaktuetan, pantailaren goiko aldean, eta, gero, ukitu **Configuración**.
3. Aukeratu kontaktuak sailkatzeko eta erakusteko modua, eta, ondoren, ukitu **Importar contactos de SIM**.

Kontaktuaren informazioa konbinatzea

Kontaktu berdinak badituzu telefonoan, Windows Live-ko kontuetan eta Facebook-en gordeta, zure telefonoa kontaktu horiek automatikoki batzen saiatuko da. Bestela, eskuz lotu ahal izango dituzu, kontaktuen zerrendan bi aldiz ez agertzeko.

1. Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** tesela.
2. Contactos hub **guztietan**, ukitu batu nahi duzun kontaktuaren izena.
3. Pantailaren beheko aldean, ukitu . Lotura-ikurraren itxura ezberdina izango da, kontaktua beste kontaktuekin bat eginda dagoen edo ez.
4. Aukeratu hauen artean:
 - **Enlaces recomendados**-en azpian (eskuragarri badago), ukitu kontaktua, kontaktu horren kontuari lotzeko.
 - Ukitu **Elegir un contacto**, Contactos zerrendako kontaktu batekin batzeko.

Kontaktu-informazioaren sinkronizazioa haustea

1. Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** tesela.
2. Contactos hub **guztietan**, ukitu kontaktu-informazioaren migrazioa eten nahi duzun kontaktuaren izena.
3. Ukitu **Desenlazar**.


Editatzea, bilatzea eta ezabatzea

Kontaktu baten informazioa editatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** tesela.
2. Contactos hub **guztietan**, sakatu segundo batzuez kontaktua, eta, gero, ukitu **Editar**.
3. Idatzi kontaktuaren informazio berria.



Kontaktua zure telefonoko beste kontu bati lotua badago, kontaktuaren informazioa beste kontuan edita dezakezu. Horretarako, ukitu **Editar {nombre de la cuenta}**.

4. Ukitu .

Kontaktuak bilatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** tesela.
2. Sakatu BÚSQUEDA.
3. Bilaketa-barran, sartu bilatzen ari zaren kontaktuaren izenaren edo abizenaren lehen letrak. Bat datozen kontaktuak bistaratuko dira.
4. Ukitu kontaktua kontaktuaren xehetasunak dituen pantaila irekitzeko. Ikus "Kontaktuaren informazioa" kapitulu honetan, informazio gehiago nahi izanez gero.



M letraz hasten diren kontaktuak bilatu nahi dituzu? Ukitu letraren laukia, esaterako **m** zure kontaktu-zerrendako letra jakin batera joateko.


Kontaktu bat ezabatzea

Ezin dituzu Facebook-eko kontaktuak zure telefonoan ezabatu.

1. Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** tesela.
2. Contactos hub **guztietan**, sakatu segundo batzuez kontaktua, eta, gero, ukitu **Eliminar**.
3. Berresteko eskatzen zaizunean, ukitu **Eliminar**.

Zure Yo tesela

Windows Live-ko edo Facebook-eko zure kontuan saioa hasten duzunean, Yo tesela automatikoki sortuko da hasierako pantailan. Ukitu Yo tesela hasierako pantailan (edo Contactos hub guztietan), eta ikusi argitaratu dituzun egoera-eguneraketak, jaso dituzun iruzkinak eta Windows Live-ko edo Facebook-eko zure kontuetan kargatu dituzun irudiak.



Yo pantailan, hauek uki ditzakezu:

- Zure argazkiaren eskuinean dagoen egoera-mezua, egoera-mezu berri bat argitaratzeko.
- Zure argazkia, aldatzeko.
- Argazki bat, ikusteko.
- Sarrera bat, iruzkinak eransteko edo iruzkin bati erantzuteko.

Teklatua










Teklatua pantailan erabiltzea

Aplikazio bat abiarazten duzunean edo testua edo zenbakia idatzi behar den lauki bat hautatzen duzunean, aukera izango duzu pantailako teklatua erabiltzeko.


Testua idatzi ondoren, sakatu ATRÁS teklatua ixteko. Teklatua ireki eta berriro erabiltzeko, ukitu testu-koadro bat.

Testua idaztea

Aplikazioaren arabera, baliteke teklatuaren diseinua zertxobait aldatzea. Erabili tekla hauek testua idazteko:

	Tekla batzuek karaktere edo azentu ugari dituzte. Sakatu segundo batzuek tekla hori erabilgarri dauden karaktereak eta azentuak ikusteko.
	Mayús tekla da. Sakatu tekla hau letra larri bat idazteko. Hurrengo letra txikiz idatziko da. Luzatu segundo batzuek maiuskulen blokeoa aktibatzen.
	Sakatu zenbakien eta ikurren teklatura aldatzeko.
	Zenbakien eta ikurren teklaturan zaudela, ukitu hau sinbolo gehiago ikusteko.
	Ukitu teklatu alfanumerikora itzultzeko.
	Ukitu teklatuaren hizkuntza aldatzeko. Telefonoaren bertsioaren arabera hizkuntza desberdinak izango dituzu erabilgarri. Baliteke teklatu-hizkuntza bakarra duten telefonoetan tekla hori ez egotea. Ikus "Beste teklatu-hizkuntza batzuk gaitzea" atala informazio gehiago eskuratzeko.
	Enter tekla da. Ukitu, lerro berri bat sortzeko.
	Atzera tekla da. Ukitu, aurreko karakterea ezabatzen.
	Aurpegieren tekla da (testu edo mezu irudidunak idaztean soilik dago erabilgarri). Ukitu aurpegierak sartzeko.


Kurtsorea mugitzea

1. Testua idazten duzun bitartean, sakatu segundo batzuek testu-koadroa. Kurtsore higikor bat agertuko da .
2. Arrastatu kurtsorea nahi duzun lekura, eta askatu hatza.

Teklatu horizontalera aldatzea



Testua idazten duzunean, aukera duzu teklatua modu horizontalean jartzeko.

Biratu telefonoa aldeetara teklatu handiagoa erabiltzeko, eta hatz lodiarekin errazago idatz dezazun.



Teklatuaren beste hizkuntza batzuk gaitzea

Teklatuan beste hizkuntza batzuk agertzeko aukera hauta dezakezu. Ezaugarri hori eskuragarri egotea ala ez eta erabilgarri dagoen hizkuntza-aukera telefonoaren bertsioaren arabera egongo da.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Teclado**.
3. Ukitu **Idiomas de teclado laukia**.
4. Hautatu agertzea nahi duzun teklatu-hizkuntzak, eta ukitu .


Testu prediktiboa duten hitzak idaztea

Teklatuak testu prediktiboa du, azkarrago eta zehaztasun handiagoarekin idatz dezazun. Testu prediktiboa lehenespenez gaituta dago, eta idatzi ahala agertzen dira hitzen iradokizunak.

Hitz bat modu prediktiboan idazteko, aukeratu hauen artean:

- Nahi duzun hitza letra lodiz agertzen bada, ukitu zuriune-barra hitza testuan sartzeko.
- Hitza idaztez amaitu aurretik, nahi duzun hitza iradokizunetan ikusten baduzu, ukitu ezazu, testuan sartzeko.
- Joan iradokizun-barraren ezkeraldera zenbait hitz ikusteko.

Teklatuaren doikuntzak aldatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Teclado**.
3. Desautatu nahi dituzun aukeren kontrol-laukia.

Mezuak

Mensajes-i buruzko informazioa

Egon harremanetan zure bizitzako pertsona garrantzitsuenekin. Erabili Mensajes aplikazioa testu-mezuak eta irudi-mezuak idazteko eta bidaltzeko.

Hasierako pantailan, ukitu **Mensajes** tesela.






Elkarrizketen pantailan, bidalitako eta jasotako mezuak elkarrizketetan multzokatzen dira, kontaktu-izenaren arabera edo telefono-zenbakiaren arabera. Aukera hauek dituzu:

- Mugitu gora eta behera elkarrizketa-zerrendan, hatza pantailan arrastatuz.
- Ukitu kontaktu baten izena edo zenbakia mezu-trukea ikusteko.




Testu-mezuak bidaltzea

Testu-mezu baten karaktere-muga gainditzen baduzu, mezua mezu bakar gisa bidaliko da, baina bat baino gehiago fakturatuko dira.

1. Hasierako pantailan, ukitu Mensajes tesela.
2. Elkarrizketen pantailan, ukitu .
3. Gehitu hartzaille bat edo batzuk. Aukera hauek dituzu:
 - Sartu telefono zenbakiak **Para** eremuan. Erabili puntu eta koma hartzailleak bereizteko.
 - Idatzi kontaktuaren izenaren lehen letrak. Informazioa sartu ahala, kontaktu-zerrendan bat datozen telefono-zenbakiak agertuko dira. Sakatu nahi duzun kontaktua.
 - Ukitu hartzailen eremuaren eskuinaldean dagoen , eta, gero, ukitu nahi duzun kontaktua eta zein telefono-zenbakitara bidali nahi duzun.
4. Ukitu "escriba un mensaje" testua duen laukia, eta hasi testua idazten.
5. Sakatu  mezua bidaltzeko.


Irudia duen mezuak bidaltzea

Irudia duen mezu bat bidaltzeko, sortu testu-mezu berri bat, eta erantsi argazki bat.

1. Hasierako pantailan, ukitu Mensajes tesela.
2. Elkarrizketen pantailan, ukitu .
3. Gehitu hartzaile bat edo batzuk. Aukera hauek dituzu:
 - Sartu telefono-zenbakiak edo helbide elektronikoak **Para:** eremuan. Erabili puntu eta koma hartzaileak bereizteko.
 - Idatzi kontaktuaren izenaren lehen letrak. Informazioa sartu ahala, kontaktu-zerrendan bat datozen telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak agertuko dira. Sakatu kontaktu baten zenbakia edo helbide elektronikoa.
 - Ukitu hartzaileen eremuaren eskuinaldean dagoen , eta, gero, hautatu mezua bidali nahi diozun kontaktuaren telefono-zenbakia.
4. Ukitu  eta hautatu bidali nahi duzun argazkia.





Ukitu  argazki bat ateratzeko eta argazkia eransteko.

5. Idatzi mezua.
6. Sakatu  mezua bidaltzeko.

Mezuak ikustea eta horiei erantzutea

Mezu berri bat jasotzen duzunean, telefonoak alerta-soinu bat egingo du (konfiguratua badago), eta pantailaren goiko aldean mezua agertuko da.



1. Mezua ireki eta irakurtzeko, hau egin dezakezu:
 - Ukitu pantailaren goiko aldeko mezu-barra.
 - Ireki Mensajes aplikazioa mezua irekitzeko eta irakurtzeko.
2. Idatzi zure erantzuna, eta ukitu .


Mezu-elkarrizketak kudeatzea

Elkarrizketa bat ezabatzea

1. Elkarrizketen pantailan, ukitu segundo batzuez ezabatu nahi dituzun mezuen kontaktu (edo telefono-zenbakia), eta ukitu **Eliminar**.
2. Berresteko eskatzen zaizunean, ukitu **Eliminar**.


Mezu bat ezabatzea

1. Elkarrizketen pantailan, ukitu kontaktu bat (edo telefono-zenbaki bat) kontaktu horrekin duzun mezu-trukea ikusteko.
2. Sakatu segundo batzuez ezabatu nahi duzun mezua.




3. Aukeren menuan, ukitu **Eliminar**.
4. Berresteko eskatzen zaizunean, ukitu **Eliminar**.

Mezu bat birbidaltzea

1. Elkarrizketen pantailan, ukitu kontaktu bat (edo telefono-zenbaki bat) kontaktu horrekin duzun mezu-trukea ikusteko.
2. Sakatu segundo batzuez birbidali nahi duzun mezua.
3. Aukeren menuan, ukitu **Reenviar**.
4. Idatzi hartzailearen izena.
5. Sakatu  mezua bidaltzeko.

Posta elektronikoa

POP3/IMAP posta elektronikoko kontu bat gehitzea


1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Aukeratu hauen artean:
 - Oraindik ez baduzu konturik konfiguratu, ukitu **Correo** hasierako pantailan.
 - Ireki **Configuración**, eta ukitu **Correo electrónico y cuentas > agregar una cuenta**.
3. Ukitu **Configuración > Correo electrónico y cuentas > agregar una cuenta**.
4. Hautatu zer kontu-mota konfiguratu nahi duzun.




Ez baduzu ikusten nahi duzun kontu-mota, ukitu **beste kontu bat** edo **Configuración avanzada**. Konfigurazio aurreratua egiteko sarrerako eta irteerako zerbitzariaren konfigurazioa sartu behar da. Hortaz, aukera hori hautatzen baduzu prest izan behar dituzu bi konfigurazio horiek.

5. Idatzi kontuaren helbide elektronikoa eta pasahitza.
6. Sakatu **Iniciar sesión**.


Microsoft Exchange Server-eko kontu bat eranstea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Aukeratu hauen artean:
 - Oraindik ez baduzu konturik konfiguratu, ukitu **Correo** hasierako pantailan.
 - Ireki **Configuración**, eta ukitu **Correo electrónico y cuentas > agregar una cuenta**.
3. Ukitu **Configuración > Correo electrónico y cuentas > agregar una cuenta**.
4. Ukitu **Outlook**.
5. Sartu Exchange ActiveSync kontuaren xehetasunak, eta, gero, ukitu **Iniciar Sesión**. Enpresako Exchange Server-ek onartu egin behar du telefonoa automatikoki detektatzea, Exchange ActiveSync kontua automatikoki konfiguratzeko. Enpresako Exchange Server-ek ez badu detekzio automatikoa onartze, Exchange Server-en konfigurazioa sartu beharko duzu. Eskatu informazio gehiago Exchange Server-eko administratzaileari.

Sarrerako ontzia begiratzea

Posta elektronikoko kontu bat konfiguratu eta gero, tesela bat sortzen da kontu horrentzat Inicio pantailan. Posta elektronikoko kontu bat irekitzeko, ukitu zure tesela Inicio pantailan. Tesela ikusten ez baduzu, ukitu Inicio pantailako  gezia, eta, gero, ukitu kontua aplikazio-zerrendan.

Mugitu hatza ezkererantz edo eskuinerantz, presazko posta, markatutakoa edo irakurri gabea bakarrik begiratzeko.



Posta elektronikoko kontu bat eguneratzea

Zure sinkronizazio automatikoko doikuntzak edozein direla ere, bidalitako eta jasotako mezu elektronikoak ere sinkroniza ditzakezu eskuz edozein unetan.

Sinkronizatu nahi duzun kontuan, ukitu .

Mezu elektronikoak administratzea

Sarrerako ontzitik mezu elektroniko bat ezabatzea

1. Kontu elektronikoko sarrerako ontzian, sakatu segundo batzuez ezabatu nahi duzun mezua.
2. Aukeren menuan, ukitu **Eliminar**.


Mezu elektroniko bat karpetaz aldatzea

1. Kontu elektronikoko sarrerako ontzian, sakatu segundo batzuez lekuz aldatu nahi duzun mezua.
2. Aukeren menuan, ukitu **Mover**.
3. Ukitu mezu elektronikoa zer karpetatara eraman nahi duzun.

Sarrerako ontziko mezu bat baino gehiago hautatzea ezabatzeko edo lekuz aldatzeko

1. Posta elektronikoko kontuaren sarrerako ontzian, hau egin:

- Sakatu .
- Ukitu mezu elektronikoen baten ezkerrean.



2. Ukitu ezabatu edo karpeta aldatu nahi dituzun mezu elektronikoen kontrol-laukiak.



3. Ukitu  ezabatzeko, edo , beste karpeta batera eramateko.

Mezu elektronikoa bidaltzea

1. Ireki mezua bidali nahi duzun posta elektronikoko kontua.

2. Posta elektronikoko kontuaren sarrerako ontzian, ukitu .

3. Gehitu hartzaile bat edo batzuk. Aukera hauek dituzu:



- Helbide elektronikoa zuzenean eremuan idaztea. Mezu elektronikoa hartzaile bati baino gehiagori bidali nahi badiozu, bereizi helbideak puntu eta koma batekin. Helbide elektronikoa sartu ahala, zure kontaktu-zerrendan bat datozenak agertuko dira. Sakatu bat datorren horietako bat helbidea zuzenean sartzeko.
- Ukitu hartzaileen eremuaren eskuinaldean dagoen , eta, gero, hautatu mezua bidali nahi dituzun kontaktua. Ukitu  berriro hartzaile gehiago eransteko.

4. Sartu gaia eta, ondoren, idatzi mezua. Ukitu gaiaren azpiko zuriunea mezua idazteko.


5. Fitxategi bat eransteko, ukitu . Argazkiak soilik erants ditzakezu.

6. Ukitu  mezua berehala bidaltzeko, edo ukitu  > **Guardar** geroago bidaltzeko.

Ziriborroen karpetan dagoen mezu elektronikoa bat berriro bidaltzea


1. Posta elektronikoko kontuaren sarrerako postontzian, sakatu  eta, ondoren, sakatu **Borradores**.
2. Ukitu mezua.
3. Mezua idaztez amaitzean, ukitu .

Mezu elektronikoa irakurtzea eta haiei erantzutea

1. Hasierako pantailan, ukitu posta elektronikoko kontuaren tesela.
2. Kontu elektronikoko sarrerako ontzian, sakatu irakurri nahi duzun mezua.
3. Ukitu , eta gero **Responder**, **Responder a todos** edo **Reenviar**.

Mezu elektronikoa batean lehentasuna ezartzea

1. Mezua idaztean, ukitu (...).



2. Ukitu **Prioridad**.
3. Hautatu mezua lehentasuna.

Lehentasun **altua** edo **baxua** hautatu baduzu, mezua gaiaren azpian agertuko da.


Mezu elektronikoa bat markatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu posta elektronikoko kontuaren tesela.
2. Kontu elektronikoko sarrerako ontzian, sakatu segundo batzuek markatu nahi duzun mezua.
3. Aukeren menuan, ukitu **Establecer indicador**.

Mezu elektronikoa bat markatu ondoren, aukera duzu bandera kentzeko edo markatutako mezua bete moduan markatzeko. Sakatu segundo batzuek markatutako mezu elektronikoa, eta, gero, ukitu **Completar indicador** edo **Borrar indicador**.


Posta elektronikoko kontuaren konfigurazioa aldatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu posta elektronikoko kontuaren tesela.
2. Ukitu (...), eta, gero, ukitu Configuración.



3. Ukitu sinkronizazioaren **konfigurazioa**.
4. Ezarri nahi dituzun aukerak, eta, gero, ukitu **Listo**.
5. Aukeratu bidaltzen dituzun mezuetan sinadura jarri nahi duzun ala ez, eta sakatu **Listo**.

Posta elektronikoko kontu bat ezabatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Correo electrónico y cuentas**.
3. Ukitu segundo batzuek ezabatu nahi duzun posta elektronikoko kontua, eta, gero, ukitu **Eliminar**.

Egutegia

Egutegiari buruz

Erabili zure telefonoko egutegia zure hitzorduak sortzeko eta kudeatzeko. Egutegi-mota hauekin sinkronizatzeko ere konfigura dezakezu telefonoa:



- Zure telefonoan, sartu Windows Live-ko kontura telefonoko egutegia Windows Live-ko egutegiarekin sinkronizatzeko. Oraindik ez bazara Windows Live-ko zure kontura sartu, ikusi "Lehen urratsak" kapitulua, nola sartu jakiteko.
- Microsoft Exchange ActiveSync-eko kontu bat baduzu eta zure telefonoan sartu baduzu, telefonoko egutegia Exchange Server-eko egutegiko hitzorduekin sinkroniza dezakezu.
- Google-ko kontu bat baduzu eta zure telefonoan sartu baduzu, telefonoko egutegia Google-ko egutegiarekin sinkroniza dezakezu.

Egutegiko hitzordu bat sortzea


Zure telefonoan soilik agertuko diren hitzorduak sor ditzakezu, edo Interneteko kontuetako egutegiaren sinkronizatuko diren hitzorduak (esaterako, Windows Live edo Exchange Server).

1. Hasierako pantailan, ukitu Calendario tekla.



2. **Eguneko** ikuspegian edo **egutegian**, ukitu .
3. Egutegi bat baino gehiago badituzu, hautatu hitzordua zein kontutan erantsi nahi duzun:
4. Idatzi hitzorduaren xehetasunak.
5. Joan pantailaren beheko aldera, eta ukitu Mas detalles gogorarazpenak, hitzorduen maiztasunak, oharrak eta abar ezartzeko.
6. Ukitu  bukatu duzunean.

Hurrengo hitzordua hasierako pantailako Calendario teselan agertuko da.



Gonbidapen bat bidaltzea

Bilera bat edo hitzordu bat programatzeko eta jendea hitzordu horretara gonbidatzeko erabil dezakezu egutegia. Mezu elektronikoa bat bidaliko zaie zuk aukeratzen duzun kontutik.

1. Ireki egutegia, eta sortu hitzordu bat. Ikus "Egutegiko hitzordu bat sortzea" atala, urratsak ikusteko.
2. Erantsi xehetasunak; esaterako, eguna, ordua, lekua, etab. Gogoan izan gonbidapena posta elektronikoz bidaltzeko **kontua** aukeratu behar duzula.
3. Ukitu **Más detalles**, joan pantailaren beheko aldera, eta ukitu **Agregar a alguien**.
4. Bidali gonbita parte hartu behar dutenei edo parte har dezaketenei. Ukitu **Agregar a alguien**, eta ukitu gonbidatu nahi duzun pertsonaren izena.



Zure telefonoan gordeta edo sinkronizatuta dauden kontaktuak soilik gonbida ditzakezu.


5. Ukitu  bukatu duzunean.

Egutegiko ikuspegiak aldatzea

Egutegia irekitzean, egun horretako ikuspegia agertuko da lehenespenez. Agenda-ikuspegian edo hileko ikuspegian ere ikus dezakezu egutegia.

Eguneko ikuspegia eta agenda-ikuspegia

Eguneko ikuspegian egun bateko hitzorduen zerrenda ageri da. Agenda-ikuspegian hitzordu guztiak ageri dira, ordena kronologikoan.

Agenda-ikuspegiko hitzorduen eskuineko aldean ageri diren koloretako barrek adierazten dute zer egutegi-mota den. Kolore bakoitzak zer mota ordezkatzeko duen ikusteko, ukitu  eta, gero, ukitu **Calendarios**.



Kolorea aldatzeko, ukitu koloretako laukia.

Eguneko ikuspegian zaudenean, mugitu pantailan gora edo beheara aurreko edo hurrengo egunak ikusteko.

Hileko ikuspegia

Hileko ikuspegian, testua ikusiko duzu hitzorduren bat duzun egunetan. Hileko ikuspegira aldatzeko, sakatu hemen:

Hileko ikuspegian zaudenean:

- Sakatu egun batean, egun horretako hitzorduak ikusteko.
- Lerratu hatza pantailan gora edo beheara, aurreko edo ondorengo hilabeteak ikusteko.



Agenda-ikuspegitik hileko ikuspegira, edo eguneko ikuspegira aldatzeko, sakatu ATRAS.


Hitzordu bat ikustea, editatzea edo ezabatzea

Sortu dituzun hitzorduak ikusi, editatu edo ezabatu ditzakezu.

Hitzordu baten xehetasunak ikustea


1. Hasierako pantailan, ukitu Calendario tekla.
2. **Eguneko** ikuspegian edo **egutegian**, ukitu.

Hitzordu bat editatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu Calendario tekla.
2. **Eguneko** edo **agendako** ikuspegian, luze sakatu hitzordua, eta, gero, sakatu "editar", irekitzeko.
3. Egin aldaketak hitzorduan.
4. Aldaketekin amaitzean, sakatu .

Hitzordu bat ezabatzea

Hitzordu bat ezabatzeko bi modu daude.

- Eguneko edo agendako ikuspegian, luze sakatu hitzordua, eta, gero, sakatu "eliminar".
- Hitzordu bat ikustean, hemen sakatu: .

Hitzordua errepikatzen bada, galdetuko dizu egutegitik errepikapen hori bakarrik edo hurrengo errepikapen guztiak ezabatu nahi dituzun.

Hitzorduen gogorarazpenak ikustea, baztertzea edo atzeratzea

Hitzordu baterako gogorarazpena konfiguratu baduzu, zure telefonoak alerta-soinua erreproduzituko du, eta hurrengo hitzorduari buruzko gogorarazpen-mezua bistaratuko du.

Gogorarazpen-mezuan, sakatu **posponer** atzeratzeko, edo sakatu **descartar**, hitzorduaren gogorarazpena baztertzeko.

Egutegiak bistaratzea eta sinkronizatzea

Zure telefonoan zein egutegi bistaratu edo ezkutatu nahi dituzun aukeratu dezakezu, baita zeintzuk sinkronizatu nahi dituzun ere.

Egutegiak bistaratzea edo ezkutatzea

1. Eguneko ikuspegian edo egutegian, ukitu (...), eta, gero, sakatu “**calendarios**”-en.





2. Sakatu ezkutatu nahi duzun egutegiaren aktibatze-etengailua.

Egutegiak sinkronizatuta daude zure telefonoan, ezkutatuta izan edo ez.

Zure telefonoan sinkronizatzen diren egutegiak aukeratzea

Zure telefonoan zein egutegi sinkronizatu nahi dituzun aukeratu dezakezu, baita zein egutegiren sinkronizazioa eten nahi duzun ere.

Egutegi baten sinkronizazioa etetea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Correo electrónico y cuentas**.
3. Ukitu zure telefonoarekin sinkronizazioa etetea nahi duzun egutegiaren kontua.
4. Kendu marka **egutegiaren** kontrol-laukiari.
5. Ukitu .



Konexioa nola egin

Datuen konexioa

Zure telefonoa automatikoki konfiguratuko da zure operadore mugikorraren datu-konexioa erabiltzeko, lehenengo aldiz pizten duzunean (SIM txartela badu).

Sarbide-puntua gehitzea

Zure telefonoan datu-konexio berria gehitu aurretik, eskura itzazu zure mugikorraren operadorearengandik sarbide-puntuaren izena eta doikuntzak (erabiltzaile-izena eta pasahitza barne, halakorik behar izanez gero).


1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > datos móviles**.
3. Sakatu **agregar apn**.
4. Sartu APNa, erabiltzaile-izena eta pasahitza.
5. Sakatu .

Zure datu-konexioa konfiguratzea Configuración de la conexión aukerarekin

Zure datu-konexioa automatikoki konfiguratu dezakezu zure SIM txartelean edo hautatzen duzun mugikorraren operadore batean oinarrituta. Configuración de la conexión nola erabili jakiteko, kontsultatu "Konexioaren konfigurazioa" atala, "HTC Hub" kapituluaren.

Konexio-datuak aktibatzea edo desaktibatzea

Zure datu-konexioa deskonektatuta, bateriaren iraupena optimizatu dezakezu. Halaber, datu-transferentzian kostuak aurreztu ditzakezu. Hala ere, datu-konexioa desaktibatuta dagoenean, baliteke zure posta elektronikoan eguneratze automatikorik eta bestelako informazio sinkronizaturik ez jasotzea.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > datos móviles**.
3. Sakatu **Conexión de datos** ataleko pizte/itzaltze etengailua.




GPRS edo EDGE konexio bat soilik erabiltzea nahi baduzu, sakatu Activado/desactivado 3G etengailua, 3Ga itzaltzeko.

Datuen desplazamendua gaitzea

Datu-desplazamenduaren bidez, zure mugikorraren operadoreari lotutako sareetara konekta zaitezke, eta datu-zerbitzuetara sartu, zure mugikorraren operadorearen estaldura-eremutik kanpo zaudenean.




Datu-zerbitzuak desplazamenduan erabiltzea garestia izan daiteke. Kontsulta itzazu zure mugikorraren operadoreak zer tarifa dituen datu-desplazamendurako, datu-desplazamendua erabiltzen hasi aurretik.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > datos móviles**.
3. Ukitu **Opciones de roaming de datos** laukia, eta gero sakatu **activar roaming**.

WiFi-a

Telefonoan WiFi-a erabiltzeko, haririk gabeko sarbide-puntu baterako sarbidea edo "puntu bero" bat izan behar duzu. WiFi seinalearen erabilgarritasuna eta intentsitatea WiFi seinaleak igaro behar dituen objektuen arabera da (eraikinak edo gelen arteko hormak, esaterako).


WiFi-a aktibatzea eta haririk gabeko sarera konektatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu Configuración > Wi-Fi.
3. Sakatu Desactivar/Activar etengailua, pizteko. Une horretan, telefonoak sarearen izenak bilatuko ditu, eta atzemandako WiFi sareen segurtasun-doikuntzak WiFi sareen atalean bistaratuko dira. Halaber, WiFi sare bakoitzerako seinalearen intentsitatea bistaratzen da.
4. Ukitu zein WiFi sarera konektatu nahi duzun.
 - Sare ireki bat hautatzen baduzu, zure telefonoa automatikoki konektatuko da sarera.
 - WEPekin babestutako sarea hautatu baduzu, WEP kodea sartu behar duzu eta, gero, listo sakatu.



• Sare-motaren eta horren segurtasun-doikuntzen arabera, baliteke informazio gehiago sartu behar izatea edo segurtasun-ziurtagiri bat aukeratu behar izatea.

- WiFi profilak ezin dira eskuz gehitu.

Zure telefonoa haririk gabeko sare batera konektatuta dagoenean, WiFi ikonoa  agertuko da segundo batzuek egoera-barran.

Lehenago sartu zaren haririk gabeko sare batera berriro konektatzean, telefonoak ez du eskatuko gakorik edo bestelako segurtasun-daturik, baldin eta telefonoari fabrikako balio lehenetsiak berrezartzen ez badizkiozu.

Zure telefonoko web nabigatzailea erabiltzea



Datu-konexio aktibo bat edo WiFi konexio bat izan behar duzu Internetera sartzeko.

Nabigatzailea irekitzea

Hasierako pantailan, sakatu Internet Explorer tesela sarean nabigatzen hasteko.



Web orri batera sartzea

1. Nabigatzailearen pantailan, ukitu pantailaren goiko aldeko URLaren laukia.
2. Sartu web-orriaren helbidea, teklatura erabiliz.
3. Ukitu teklaturan.

Pantailaren orientazioa aldatzea


Telefonoak pantailaren orientazioa automatikoki aldatzen du eusten duzun moduaren arabera.

Biratu telefonoa bi aldeetara, web nabigatzailea modu horizontalean eta pantaila osoan bistaratzeko. Horizontalean dagoela, ezingo duzu URLrik sartu.

Web orri guztien bertsio osoetan nabigatzea


Web orri batzuek, telefonoetako web nabigatzaileentzako bertsioa bistaritzen dute. Orri guztien bertsio osoa ikusteko aukera duzu, baita kasu horretan ere.

Nabigatzailearen pantailatik, telefonoa bertikalean duzula, ukitu ..., sakatu **configuración**, eta, gero, hautatu **Versión de escritorio**.



Webgune batean nabigatzea

Hatza pantailan zehar lerratu dezakezu nabigatzeko eta webguneko beste eremu batzuk ikusteko.



Web orri bat hurbiltzea eta urruntzea

Bi aldiz azkar sakatu pantailan, hurbiltzeko; gero, bi aldiz azkar sakatu berriro, urruntzeko. Halaber, hatzak erabil ditzakezu hurbiltzean edo urruntzean pantaila konprimitzeko edo handitzeko.



Web orri bateko esteka bat hautatzea

Hatzarekin esteka batean sakatu dezakezu, hori irekitzeko, edo zenbait segundoz sakatu dezakezu, aukera gehiago irekitzeko.


Esteka	Zer egin
Web orriko helbidea (URL)	<ul style="list-style-type: none"> Sakatu estekan, web orri horretara joateko. Sakatu esteka zenbait segundoz, menu bat irekitzeko. Horren bidez, orria fitxa berrian ireki dezakezu edo esteka bidal dezakezu mezu elektronikoko baten bidez edo testu-mezu baten bidez.
Helbide elektronikoa	Sakatu helbide elektronikora mezu elektronikoko bat bidaltzeko.

Nabigazio-fitxa berria irekitzea

Ireki hainbat nabigazio-fitxa, webgune batetik bestera aldatzea errazteko. Gehienez, sei nabigazio-fitxa ireki ditzakezu.


- Bertikalean webgune bat ikusten ari zarela, sakatu .
- Ukitu  Nabigazio-fitxa berria irekiko da.



Nabigazio-leiho batetik bestera aldatzea

- Bertikalean webgune bat ikusten ari zarela, sakatu .
- Hautatu nahi duzun nabigazio-leiho, ireki nahi duzun leihoa sakatuta.


Testua web-orri batean bilatzea

- Web-orri bat bistaratzen duzunean, ukitu ... eta gero sakatu **Buscar en una página**.




2. Sartu bilaketa-elementua, eta gero sakatu teklatuko Intro tekla. Bilaketa-elementua nabarmendu egiten da bilatzean.
3. Ukitu  edo  bat egiten duen hurrengo elementura edo aurrekora joateko.

Webgune bat gehitzea gogokoetan


1. Bertikalean webgune bat ikusten ari zarela, sakatu .
2. Editatu markatzailearen izena, behar izanez gero, eta, gero, ukitu **aceptar**.

Gogoko bat irekitzea


Bizkor-bizkor ikusi gehien erabiltzen dituzun orriak.

1. Bertikalean webgune bat ikusten ari zarela, ukitu .
2. **Gogokoetan**, ukitu ireki nahi duzun gogokoa.



Gogoko bat editatzea

1. Bertikalean webgune bat ikusten ari zarela, ukitu .
2. **Gogokoetan**, ukitu segundo batzuek editatu nahi duzun gogokoa, eta, gero, ukitu **Editar**.
3. Egin aldaketak, eta ukitu **Aceptar**.

Aurrez bisitatutako orri bat ikustea

1. Bertikalean webgune bat ikusten ari zarela, ukitu .
2. Lerratu atzamarra ezkererantz, **historiara** joateko.
3. Ukitu ireki nahi duzun orria.


Aurrez bisitatutako orrien zerrenda ezabatzea

1. Bertikalean webgune bat ikusten ari zarela, ukitu .
2. Lerratu atzamarra ezkererantz **historiara** joateko, eta, gero, ukitu .
3. Ukitu **Eliminar**.

Nabigatzailearen aukerak ezartzea

Pertsonalizatu web-nabigatzailea, zure araketa-lehentasunetara egokituz. Konfiguratu pantaila-, pribatutasun- eta segurtasun-aukerak web-nabigatzailea erabiltzean.


Nabigatzailearen pantailan, ukitu... , eta, gero, ukitu **Configuración**.



Bluetooth-a

Bluetooth-a aktibatzea

Bluetooth-a aktibatzea, telefonoa antzemateko moduan egoteko.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Bluetooth**.
3. Ukitu **pizteko/jizaltzeko** etengailua.

Zure gailua antzemateko moduan dago, eta bere irismeneko Bluetooth gailuen bila dabil.




Desaktibatu Bluetooth aukera erabiltzen ez duzunean batera aurrezteko, edo haririk gabeko gailuak erabiltzea debekatuta dagoen lekuan, esaterako hegazkinean edo ospitaleetan.


Zer Bluetooth profil onartzen ditu nire telefonoak?

Zure telefonoak hauek onartzen ditu: A2DP, PBAP, HFP, HSP eta AVRCP.

Bluetooth entzungailu bat edo autorako kit bat konektatzea


Musika entzun dezakezu Bluetooth entzungailu estereo batekin edo esku libreko elkarriketak eduki ditzakezu Bluetooth gailu batekin edo autorako bateragarria den kit batekin. Estereo soinua konfiguratzeko eta eskulibrekoa konfiguratzeko, prozedura bera da.

- Aurikularrarekin edo autorako kitarekin musika entzuteko, bi kasuetan, Bluetooth A2DP profila onartu behar da.
 - Entzungailua konektatu aurretik, ikusgai dagoela doitu behar duzu, zure telefonoak aurkitu dezan. Nola egin jakiteko, ikus entzungailuaren eskuliburua.
1. Ziurtatu entzungailua ikusgai dagoela.
 2. Hasierako pantailan, ukitu .
 3. Ukitu **Configuración > Bluetooth**.
 4. Bluetooth-en etengailua itzalita badago, ukitu hura, Bluetooth-a aktibatzeko. Telefonoa Bluetooth-a duten gailuak bilatzen hasiko da irismen-eremuaren barnean.
 - 5 Zure entzungailuaren izena agertzen denean, ukitu hura. Orduan, telefonoa entzungailuarekin automatikoki sinkronizatzen saiatuko da.
 6. Sinkronizazio automatikoan erroreren bat badago, sartu entzungailuarekin emandako pasahitza.

Bluetooth entzungailua edo autorako kita telefonora konektatuta dagoenean, Bluetooth konektatuta dagoela adierazten duen irudia  egoera-barran agertzen da segundo batzuek. Konexio-egoera edo autorako kitaren izena ikusteko, begiratu esku libreko entzungailuaren azpian. Konektatutako entzungailuaren edo autorako kitaren arabera, entzungailua edo autorako kita musika entzuteko eta/edo telefono-deiak jasotzeko eta egiteko erabiltzen has zaitezke.

Entzungailu bat edo autorako kit bat berriro konektatzea


Oro har, entzungailua berriro erraz konekta dezakezu: telefonoan, aktibatu Bluetooth aukera, eta, gero, aktibatu entzungailuan. Bestalde, entzungailua beste Bluetooth gailuren batekin erabili bada, beharbada konexioa eskuz egin beharko duzu.

1. Ziurtatu entzungailua ikusgai dagoela.
2. Hasierako pantailan, ukitu .
3. Ukitu **Configuración > Bluetooth**.
4. Bluetooth-en etengailua itzalita badago, ukitu hura, Bluetooth-a aktibatzen.
5. Sakatu aurikularraren izenean, Bluetooth gailuen atalean.
6. Pasahitz bat sartzeko eskatzen bazaizu, saiatu "0000" edo "1234" zenbakiekin edo begiratu entzungailuaren edo autorako kitaren dokumentazioan.

Oraindik lortu ez baduzu entzungailua edo autorako kita berriro konektatzea, jarraitu "Bluetooth gailu bat desinkronizatzea" atalean emandako jarraibideei, eta, gero, jarraitu "Bluetooth entzungailu bat edo autorako kit bat konektatzea" atalean emandako jarraibide xehatuei.


Bluetooth gailu bat deskonektatzea edo desinkronizatzea

Bluetooth gailu bat deskonektatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Bluetooth**.
3. Bluetooth gailuen zerrendan, ukitu deskonektatu nahi duzun gailua. Berriro gailuen zerrenda ukitu, konektatzeko.

Bluetooth gailu bat desinkronizatzea.


Telefonoak sinkronizazio-konexioa ahaztaraztea lor dezakezu beste Bluetooth gailu batekin. Beste gailu batekin berriro konektatzeko, pasahitza berriro sartu edo berriro berretsi behar duzu.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Bluetooth**.
3. Bluetooth gailuen zerrendan, sakatu segundo batzuek desinkronizatzen gailua.
4. Ukitu **Eliminar**.

Kamera

Kameraren oinarrizko alderdiak

Negozioengatik edo plazeragatik bidaiatzen duzunean, gozatu telefonoaren kamerarekin bidaiaren eta aurkikuntzen argazkiak eginez edo bideoak grabatuz.

Kamera irekitzeko, sakatu CÁMARA edo ukitu  hasirako pantailan, eta, gero ukitu Cámara. Kameraren aplikazioa lehenengo aldiz irekitakoan, telefonoaren kokapena partekatu nahi duzun galdetuko dizu. Partekatzea aukeratuz gero, kokapen-etiketa bat gehituko zaie ateratako argazkiei, non egin ziren jakin dezazun.

Bisore-pantaila



Kamerak ikuspegi bakarra erakusten du horizontalean. Bisore-pantailan, kontrol hauek izango dituzu:



Ukitu, Foto eta Vídeo moduen artean txandakatzeko.



Ukitu irudia gerturatzeko edo urrutiratzeko.





Ukitu kameraren konfigurazioa irekitzeko. Ikus kapitulu honetako "Kameraren konfigurazioa", datu xehatuagoak eskuratzeko.

Gerturatzeta eta urruntzea

Argazki bat egin aurretik edo bideo bat grabatu aurretik, pantailako zoom-botoiak erabil ditzakezu argazkiak atera duzuna gerturatzeko edo urruntzeko.

Pantailako + edo - botoiak sakatu baino ez dituzu egin behar gerturatzeko edo urruntzeko

Argazkia ateratzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Cámara**.
3. Argazkia atera aurretik, lehenbizi argazkian atera nahi duzuna gerturatu daiteke. Ikus “Gerturatzea eta urruntzea”, informazioa eskuratzeko.
4. Ukitu  eta, gero, hautatu kameraren flash moduren bat, argi-kondizioen arabera.
5. Enkoadratu argazkian atera nahi duzuna bisore-pantailan.
6. Sakatu CÁMARA argazkia ateratzeko.
7. Aukeratu zer egin nahi duzun atera berri duzun argazkiarekin. Ikus “Argazkia atera edo bideoa grabatu eta gero”, xehetasun gehiago eskuratzeko.

Kameraren flasharen argia ez da pizten?

Flasharen argia erabiltzean bateriaren energia asko kontsumitzen da. Bateriaren energia aurrezteko, kamerak flasharen argia desaktibatzen du (baita kameraren flasha **Flash automático** edo **Flash activado** moduan konfiguratzeko denean ere) egoera hauetan:

Dei bat jasotzen duzunean

Flasharen argia aldi baterako desaktibatzen da, dei bat jasotakoan. Deia amaitutakoan, berriro erabil dezakezu flasharen argia.

Flasharen argia **Flash activado** gisa konfiguratu baduzu, aukera hori berrezarri egiten da deia amaitutakoan.



Telefonoaren bateria-maila % 20 edo txikiagoa denean


Kargatu bateria, kamerak flasharen argia erabiltzeko nahikoa energia izan dezan.

Tenperatura baxuek bateriaren errendimendua geldotu dezakete, eta horrek flasharen argiari eragin diezaiolke.

Kamerak flasharen argia aktibatzeko nahikoa bateria duela ziurtatzeko, ingurune epelean eduki telefonoa. Erabiltzen ari ez zarenean, sakelan gorde beroa mantentzeko eta bateriaren errendimenduan eragin dezaketen tenperatura-aldaketa handiak saihesteko.

Bideo bat grabatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Cámara**.
3. Bisorearen pantailan, ukitu  bideo modura aldatzeko.
4. Grabatzen hasi aurretik, lehenbizi grabatu nahi duzunarengana gerturatu zaitezke. Ikus “Gerturatzea eta urruntzea”, informazioa eskuratzeko.


5. Ukitu  eta, gero, aukeratu flasharen argia aktibatzea edo desaktibatzea nahi duzun bideoa grabatu bitartean.
6. Fokuratu grabatu nahi dena pantailan.
7. Sakatu CÁMARA bideoa grabatzen hasteko. Berriro sakatu, grabaketa gelditzeko
8. Aukeratu zer egin nahi duzun grabatu berri duzun bideoarekin. Ikus "Argazkia atera edo bideoa grabatu eta gero", xehetasun gehiago eskuratzeko.

Argazkia atera edo bideoa grabatu eta gero

Argazki bat atera eta gero edo bideo bat grabatu eta gero, lerratu atzamarra ezkerretik eskuinera atera berri duzun argazkia edo grabatu berri duzun bideoa ikusteko. Eduki sakatuta argazkia edo bideoa hauek egin ahal izateko:

gogokoak gehitu (argazki moduan bakarrik)	Gehitu argazkia gogokoei Imágenes aplikazioan.
ezabatu	Ateratako argazkia edo grabatutako bideoa ezabatzeke
SkyDrive-n kargatu Facebook-en kargatu (argazkia moduan bakarrik)	<ul style="list-style-type: none"> • SkyDrive-n kargatu: kargatu argazkia SkyDrive-ren lineako biltegitartean. Windows Live-ko kontuan saioa hasi behar duzu SkyDrive-n kargatzeko. • Facebook-en kargatu: Facebook-eko zure orrian kargatu argazkia. Facebook-eko kontuan saioa hasi behar duzu Facebook-en kargatzeko.
partekatu (argazki moduan bakarrik)	Lagunei bidali argazkia mezu bidez edo posta elektronikoko bidez.
pantailaren atzealde gisa erabili (argazki moduan bakarrik)	Erabili argazkia blokeoko pantailaren atzealde gisa.

Kameraren konfigurazioa

Kameraren konfigurazioa ikusteko edo aldatzeko, ukitu  bisorearen pantailan, eta, gero, ukitu elementu bat.


Efecto	Ateratako argazkiei edo grabatutako bideoei efektu berezi bat aplikatzen die.
Resolución	Argazkiaren edo bideoaren bereizmen bat hautatu, argazkia ateratzerakoan edo bideoa grabatzerakoan erabiltzeko.
Calidad (argazki moduan bakarrik)	Hautatu argazkiak ateratzeko erabili nahi duzun kalitate-maila.
Escena (argazki moduan bakarrik)	Aukeratu argazkian atera nahi duzun objektuarekin edo inguruarekin bat datorren eszena bat.
Ajuste de parpadeo.	Barruko argazkiak argiztapen fluoreszente batekin egitean, ezarpen hau Automático gisa jarri behar da edo herriaren arabera maiztasun egoki batera aldatu behar da (50 edo 60 Hz) keinuak murrizteko.
Modo Medición.	Ezari kamerak nola neurtzen duen argi kantitatea esposiziorik onena kalkulatzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Área central moduan, kamerak argia erdigunean neur dezake. • Media moduan, kamerak irudiaren argitasun osoa neur dezake.
Restaurar a valores predeterminados	Kamera ezarpen lehenetsietara leheneratzen da.

Irudiak


Imágenes hub-ari buruzko informazioa

Imágenes hub-arekin, telefonoaren kamera bidez egindako, telefono bidez deskargatutako edo sinkronizatutako argazkiak eta bideoak ikus ditzakezu. Zure argazkiak Windows Live-ko eta Facebook-eko zure kontuetan ere ikus ditzakezu.

Imágenes hub-a irekitzeko, ukitu Imágenes tesela hasierako pantailan.



Imágenes hub-a ireki eta gero, lerratu ezkererantz argazki berrienak eta Facebook-eko eta Windows Live-ko argazkiak ikusteko.



Imágenes hub-aren mahaigainaren atzealdea aldatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu Imágenes tesela.
2. Segundo batzuez, sakatu pantailaren goiko aldeko testu-**irudiak**.
3. **Cambiar fondo** ukitu.

Argazkiak eta bideoak ikustea


1. Aukeratu nola joan nahi duzun argazki eta bideo batetik bestera (guztiak, data, gogokoak).
2. Hautatu album bat ikusteko
3. Ukitu argazkia edo bideoa pantaila osoan ikusteko.

Argazkiak eta bideoak orientazio horizontalean ikustea


- Argazkiaren orientazioa automatikoki doitzen da telefonoari eusteko modura. Biratu telefonoa aldeetara, argazkia modu horizontalean ikusteko.
- Bideoa erreproduzitzean, beti erakusten da modu horizontalean. Erabili pantailako kontrolak, bideoa erreproduzitzeko, eteteko edo gelditzeko.

Argazki bat gerturatzea edo urruntzea

Pantailan atzamarrak mugituz ere egin dezakezu. Erpuruarekin eta hatz erakuslearekin pantailan sakatzen baduzu, eta gero banantzen badituzu, irudia gerturatu egingo da. Elkartzen badituzu, berriz, irudia urrundu egingo da.



Gerturatu



Urrundu

Argazkiek ukituak ematea


Ukituak eman argazkiei argazki-editorearekin. Ikus HTC Hub-aren "Argazki-editorea" atalean, argazkiei ukituak nola eman jakiteko.

Argazkiak bidaltzea


Imágenes hub-arekin, argazkiak posta elektronikoz edo irudidun mezu baten bidez bidal ditzakezu.

Argazki batzuk posta elektronikoz bidaltzea

1. Hasierako pantailan, ukitu Imágenes tesela.
2. Ukitu **Todo**.
3. Ukitu partekatu nahi duzun argazkia dagoen albuma.
4. Sakatu segundo batzuek bidali nahi duzun argazkian, eta, gero, ukitu **Compartir**.

5. Hautatu argazkia bidali nahi duzun posta elektronikoko kontua.
6. Idatzi mezua, eta, gero, ukitu .

Irudia duten mezuak bidaltzea

1. Hasierako pantailan, ukitu Imágenes tesela.
2. Ukitu **Todo**.
3. Ukitu partekatu nahi duzun argazkia dagoen albuma.
4. Sakatu segundo batzuez bidali nahi duzun argazkian, eta, gero, sakatu **Compartir**.
5. Ukitu **Mensajes**. Argazkia mezuari automatikoki gehituko zaio.
6. Idatzi mezua, eta, gero, ukitu .


Argazkiak Interneten partekatzea

Imágenes hub-arekin, argazkiak Facebook-en parteka ditzakezu eta Windows Live-ren SkyDrive-n kargatu.

Kamera aplikazioa ere erabil dezakezu, atera berri duzun argazki bat partekatzeko. Ikus Kamera atala.


Argazkiak Facebook-en partekatzea

Facebook-eko kontuan saioa hasi behar duzu argazkiak kargatzeko.

1. Hasierako pantailan, ukitu Imágenes tesela.
2. Ukitu **Todo**.
3. Ukitu partekatu nahi duzun argazkia dagoen albuma.
4. Sakatu segundo batzuez bidali nahi duzun argazkian, eta, gero, sakatu **Compartir > Cargar en Facebook**.
5. Testua sartu nahi baduzu, ukitu **Agregar una leyenda** laukia, eta, gero, idatzi testua.
6. Testua idatzi eta gero, ukitu .

Argazki bat SkyDrive-n kargatzea

Windows Live-ko kontuan saioa hasi behar duzu argazkiak kargatzeko.

1. Hasierako pantailan, ukitu Imágenes tesela.
2. Ukitu partekatu nahi duzun argazkia dagoen albuma.
3. Sakatu segundo batzuez bidali nahi duzun argazkian, eta, gero, ukitu **Compartir > Cargar en SkyDrive**.
4. Testua sartu nahi baduzu, ukitu **Agregar una leyenda** laukia, eta, gero, idatzi testua.
5. Testua idatzi eta gero, ukitu .

Zune

Zure ordenagailua eta telefonoa sinkronizatzea


Zune softwarea beharko duzu musika, bideoak eta podcastak ordenagailutik telefonora bidaltzeko. Erabil ezazu zure ordenagailua eta telefonoa sinkronizatzeko. Oraindik ez baduzu Zune softwarea telefonon, deskargatu www.zune.net orrian eta instalatu.

Zune konfiguratzeko, zure ordenagailua eta telefonoa sinkronizatzeko

1. Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable baten bidez. Zune ireki ez baduzu, automatikoki irekiko da ordenagailuan.
2. Itxaron Zunek telefonoa onartu arte, eta jarraitu pantailako argibideei.

Zure telefonoarekin sinkronizatzeko elementuak hautatzea

Zune ordenagailuan konfiguratu ondoren, aukeratu zer sinkronizatu nahi duzun telefonoarekin.

1. Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable baten bidez. Zune ireki ez baduzu, automatikoki irekiko da ordenagailuan.
2. Zuneren pantailaren goiko aldean, sakatu **Colección**.
3. Aukeratu telefonoarekin sinkronizatu nahi duzun elementu-mota (esaterako, Música).
4. Aukeratu telefonoarekin sinkronizatu nahi dituzun elementuak, eta arrastatu itzazu telefonoaren  ikonoraino (Zuneren pantailaren ezkerreko beheko izkinan).



Música + Vídeos hub-a

Música + Vídeos hub-ak zure multimedia-bildumarako atea irekiko dizu. Entzun musika, ikusi bideoak, begiratu zure podcastak, entzun irratia eta joan marketplace-ra musika erostera. Hori guztia, Música + Vídeos hub-ean.



Musika entzutea

1. Izan musika guztia zure mugikorrean kapitulu honetako "Zure telefonoarekin sinkronizatzeko elementuak hautatzea" atalean zehaztu ditugun urratsak eginez.
2. Hasierako pantailan, ukitu Música + Vídeos tesela.
3. Música + Vídeos hub-aren zune-n, ukitu **Música**.
4. Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera musika nahi duzun kategoriaren arabera aztertzeko.
5. Ukitu entzun nahi duzun abestiaren titulua.

Entzuten ari zaren bitartean,  uki dezakezu segundo batzuek atzera egiteko edo  aurrera egiteko.

Erosi musika gehiago Marketplace-n. Informazio gehiago nahi baduzu, ikus "Aplikazio gehiago" kapituluko "Windows Marketplace" atala.

Errepikapena edo ausazko ordena aktibatzea

Abesti bat erreproduzitzen ari denean, ukitu album baten karatula, begizta bat egiteko edo albumeko abestiak ausaz erreproduzitzeko. Albuma sailkatzeko aukera ere baduzu.

Musika-erreprodukzioa egoera-barratik kontrolatzea

Musika-erreproduzitzaitik irteten zarenean, aukera duzu musika-erreprodukzioa egoera-barratik kontrolatzeko. Erreprodukzio-kontrolak egoera-barran agertzeko, sakatu BOLUMENA IGOTZEKO eta BOLUMENA JAISTEKO botoia.

Bideoak ikustea

1. Izan bideo guztiak zure mugikorrean kapitulu honetako “Zure telefonoarekin sinkronizatzeko elementuak hautatzea” atalean zehaztu ditugun urratsak eginez.
2. Hasierako pantailan, ukitu Música + Vídeos tesela.
3. Música + Vídeos hub-aren zune-n, ukitu **Vídeos**.
4. Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera bideoak nahi duzun kategoriaren arabera aztertzeko.
5. Ukitu ikusi nahi duzun bideoaren titulua.


Podcast-ak entzutea edo ikustea

1. Izan podcast guztiak zure mugikorrean kapitulu honetako “Zure telefonoarekin sinkronizatzeko elementuak hautatzea” atalean zehaztu ditugun urratsak eginez.
2. Hasierako pantailan, ukitu Música + Vídeos tesela.
3. Música + Vídeos hub-aren zune-n, ukitu **Podcasts**.
4. Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera audio- eta bideo-podcastetara joateko.
5. Ukitu ikusi edo entzun nahi duzun podcastaren titulua.

Irratia entzutea



Irratia entzuteko, konektatu entzungailua zure telefonoaren hargunera. Irratiak entzungailu estereoa erabiltzen du irradi-antena gisa.

1. Hasierako pantailan, ukitu Música + Vídeos tesela.
2. Música + Vídeos hub-aren zune-n, ukitu Radio.
3. Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera entzun nahi duzun igorgailura joateko.
4. Irrati-igorgailua zure gogokoenetara eranstea, ukitu 




Zure irradi-igorgailu gogokoenetara joateko, ukitu 

Irratiaren pantailatik irten arren, irratia atzean erreproduzituko da. Ez baduzu irratia entzuten jarraitu nahi, ukitu  irten baino lehen.

Mapak eta kokapena

Kokapen-zerbitzuak aktibatzea

Zure kokapena telefonoan aurkitzeko, kokapen-iturriak gaitu behar dituzu.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Ubicación**.
3. Pizteko, sakatu **Servicios de ubicación** ataleko pizte/itzaltze etengailua.

Bing Maps

Uneko kokapenaren segimendua egiten du **Bing Maps**-ek, zirkulazioaren egoeraren berri ematen dizu eta zure kokapenaren helbide zehatza ematen dizu.





- WiFi konexioa edo datu mugikorren konexioa aktibatuta izan behar duzu Bing Maps erabiltzeko.
- Leku batzuetan soilik ematen du zirkulazioaren egoera denbora errealean.

Kokapenak ikustea Bing Maps-en

Zure kokapena bilatzea

Zure kokapena bilatzeko Bing Maps-ekin, kokapen-iturriak gaitu behar dituzu. Nola egin jakiteko, ikus kapitulu honetako “Kokapen-zerbitzuak aktibatzea”.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Mapas**.
3. Ukitu .

Mapan mugitzea

Lerratu hatza pantailan mapako beste eremu batzuk ikusteko.

Mapa bat gerturatzea edo urruntzea

Aukera hauek dituzu:

- Bereizi hatz lodia eta erakuslea mapa gerturatzeko.
- Gerturatu hatz lodia eta erakuslea mapa urruntzeko.

Kokapen baten helbidea eta informazio osagarria eskuratzea

1. Sakatu segundo batzuek mapako kokapen bat. Lauki bat irekiko da kokapenaren gainean, eta helbidea agertuko da.
2. Ukitu laukia informazio gehiago ikusteko.




Kokapen horretara arteko helbideak eskuratu ditzakezu, kokapena hasierako pantailan finkatu dezakezu, kokapena testu-mezu batean edo mezu elektronikoko batean parteka dezakezu...

Mapa ezabatzea

Helbideak eskuratu ondoren edo mapan bilatu ondoren, mapan aplikatu dituzun markagailuak ezaba ditzakezu.

Mapa ikusten ari zaren bitartean, ukitu ... eta, gero, **Borrar mapa**.





Aireko ikuspegia aldatzea

Ikusi satellite bidezko irudiak aireko ikuspegira aldatuta. Mapa bat bistaratzen duzunean, ukitu (...), eta gero ukitu **Vista aérea activada**.

Kokapenak eta tokiak bilatzea

Bing Maps-en, kokapen bat bilatu dezakezu; adibidez, helbide bat, erreferentzia-puntu bat, saltoki baten izena edo hiri bat.

1. Mapa bat ikusgai duzunean, ukitu .
2. Idatzi aurkitu nahi duzun helbidea, erreferentzia-puntua edo hiria, bilaketa-laukian.
3. Ukitu  teklatuan.

Bilaketaren emaitzak ikustea



Bilaketaren emaitzak markatzaile gisa agertuko dira mapan. Aurkitu nahi duzun kokapena bistaratzeko duen laukia ukitu ondoren, haren helbidea, sailkapena, inguruko tokiak eta lekuari buruzko kritikak ikusiko dituzu, eskuragarri badaude.



Emaitzak zerrenda gisa bistartzeko, ukitu ... mapa ikusgai dagoenean, eta, gero, ukitu **emaitzen zerrenda**.

Helbidea lortzea

Lor itzazu helbide zehatzak. Bing Maps-ek oinez edo autoz joateko helbideak eman diezazkizuke.

1. Mapa bat ikusgai duzunean, ukitu .
2. Erabili uneko kokapena abiapuntu gisa edo sartu ibilbidea hasteko kokapen bat, lehen testu-laukian. Ondoren, sartu helmuga bigarren testu-laukian
3. Ukitu  teklatuan.
4. Hurrengo pantailan, helmugaraino nola iritsi erakutsiko dizu zerrenda batean.




Mugitu zerrendan gora eta behera, gainerako aplikazioak ikusteko.

Zirkulazio-egoera egiaztatzea

Zirkulazioari buruzko informazioa hautatutako eremuetan baino ezin da eskuratu. Mapa batean, denbora errealean zirkulazio-egoerak bistaratzeko aukera hauta dezakezu. Errepideen gainean ageri diren zenbait koloretako lerroen bidez adierazten da zirkulazio-egoera. Kolore bakoitzak adierazten du zirkulazioa zer azkartasunarekin higitzen den.

Zirkulazio-egoerak bistaratzeko, ukitu ... mapa ikusgai dagoenean, eta, gero, ukitu **Mostrar tráfico**.



HTC Hub

Hub-i buruz

Atera iezazioz probetxurik handiena zure telefonoari, gure aplikazioei esker. Egiaztatu HTC Hub, eta ikusi zer dugun dendan zuretzat. Meteorología aplikazio integratuak zauden tokiko edo hautatzen dituzun hirietako eguraldiaren berri ematen du 3Dko animazio zoragarri batean, eta hurrengo egunetarako aurreikuspena ematen du. Klik batez eskura ditzakezu askotarik tresnak, ondo pasatzeko tresnetatik hasita kudeaketarako tresnetaraino.

Egia esan, HTC Hub-en ikusten dituzun zenbait aplikazio oraindik ez daude zure telefonon. Halako aplikazioak ukituta, Marketplace-ra iristen zara, eta HTC Hub-era deskarga ditzakezu.

Ireki HTC Hub


Ireki HTC Hub Inicio pantailatik,  ukituz eta, gero, **HTC Hub** ukituz. HTC Hub-en orrialde nagusian data, ordua eta kokapena ageri dira, baita zauden tokiko eguraldia eman ere. Ukitu eguraldiaren ikurrean Meteorología aplikazioa irekitzeko, eta bilatu eguraldi-aurreikuspen gehiago.

HTC-ren aplikazio garrantzitsuenen zerrenda bat bistaratuko duzu. Ukitu  zerrenda eguneratzeko.



Aplikazioak deskargatzea

Internetera konektatuta egon behar duzu, edo WiFi konexio edo datu-konexio bat erabili behar duzu, aplikazioak deskargatzeko.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **HTC Hub**.
3. Ukitu Obtener más aukera.
4. Ukitu ireki edo deskargatu nahi duzun aplikazioa.




Aplikazioa telefonon aurrekargatu bada, aplikazio-zerrendan ere ikusiko duzu.

Eguraldia

Aterkia hartu behar al dut? Begiratu zer eguraldi egingo duen, irten baino lehen.


Eguraldia begiratzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **HTC Hub**.
Erlojuan azalduko da zauden tokian zer eguraldi egiten duen.
3. Ukitu eguraldiaren irudian, El Tiempo pantaila irekitzeko.
4. Lerratu hatza pantailan gora edo behera, beste hiri batzuetako eguraldia ikusteko.



Ez duzu ikusten zauden tokiko eguraldi-aurreikuspena? Egiaztatu ea Servicios de ubicación zerbitzuak aktibatuta dauden Configuración aukeran.


Hiri bat gehitzea

1. Eguraldiaren pantailan, ukitu .
2. Idatzi zer hiri gehitu nahi duzun. Idatzi ahala, sartutako testuaren arabera izan daitezkeen zenbait kokapenen zerrenda bistaratuko da.
3. Ukitu hiriaren izena, hautatzeko.

Zerrendatik hiri bat kentzea

1. Eguraldiaren pantailan, ukitu ... > **Editar ubicaciones**.
2. Ukitu kendu nahi duzun hiriaren ondoko zirkulu gorria.
3. Ukitu **Listo**.

Aldatu hirien ordena El tiempo pantailan

1. Eguraldiaren pantailan, ukitu ... > **Editar ubicaciones**.
2. Sakatu  segundo batzuez, lekuz mugitu nahi duzun elementuaren bukaeran. Lerroa nabarmenduta ageri denean, arrastatu kokaleku berrira, eta, gero, han askatu.
3. Ukitu **Listo**.

Temperatura-eskala aldatzea

1. Eguraldiaren pantailan, ukitu ... > **Configuración**.
2. Temperatura-eskalaren azpian, hautatu **Fahrenheit** edo **Celsius**.

Kalkulagailua

Hartu telefonoa posizio bertikalean, eta oinarrizko kalkulagailua erabili ahal izango duzu. Mugitu telefonoa alde baterantz, eta kalkulagailu zientifiko bat lortuko duzu.


Konexioaren ezarpenak

Zure telefonoko datu-konexioa konfiguratu, SIM txartelean edo hautatzen duzun operadore mugikor batean oinarrituta. Egiaztatu SD txartela instalatua duzula telefonoan, honekin hasi baino lehen.



Configuración de la conexión aukera telefonoan hautatutako bertsioetan baino ezin da erabili. Baldin eta telefonoak aurrez konfiguratutako doikuntzak baditu, operadore mugikor jakin batentzat instalatu direnak, Configuración de la conexión aukera erabilgarri egongo da.


Datu-konexioa automatikoki konfiguratzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **HTC Hub**.
3. Ukitu Obtener más aukera.
4. Ukitu **Configuración de la conexión**.

Konexioa konfiguratzeko aukerak automatikoki ezarriko ditu zure telefonoko doikuntzak. Operadore mugikor bat baino gehiago badituzu aukeran, hautatu zuri dagokizuna.

5. Ukitu .



Configuración de la conexión aukerak ez baditu automatikoki ezartzen zure telefono mugikorreko doikuntza guztiak, eskuz konfiguratu ahal izango dituzu. Ukitu > **Selección manual**, hautatu herrialdea edo erabili nahi duzun operadorea, eta, gero, ukitu .

Bihurgailua

Zenbat libera ditu kilogramo batek? Erabili bihurgailuaren aukera pisua, luzera, bolumena edota monetak bihurtzeko.

Linterna

Erabili telefonoko kameraren flasha linterna gisa.

Zerrenda

Hortzetako pasta erostea ahaztu zaizu berriz? Ziurtatu hurrengoan ez zaizula ahaztuko, supermerkatuan erosi beharreko gauzak apuntatzeko zerrenda erabiliz.



Maitasuna

Maite nau, ez nau maite... Maite nau! Jakin ezazu pertsona berezi horrek zuk sentitzen duzun bera sentitzen ote duen.

Oharrak

Afaltzera joan aurretik emaztearentzako loreak jasotzeko oharra. Erabili Notas, gogorarazpen laburrak jasotzeko.

Oharra sortzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **HTC Hub**.
3. Ukitu Obtener más.
4. Ukitu **Notas**.
5. Ukitu .



Ohar-pila ere uki dezakezu, pantailaren beheko ezkerreko aldean, ohar bat sortzeko.

6. Idatzi zure oharra, eta, gero, ukitu .

Ohar bat editatzea

1. Nota pantailan, ukitu .



Hatza ezkerreko mugituz ere joan zaitezke kortxotik zerrenda ikuspegira.


2. Ohar bat irekitzeko, ukitu oharra bera, eta editatzeko, ukitu berriz.

Ohar bat kortxoko beste toki batera mugitzea



1. Kortxoan, sakatu ohar bat segundo batzuetan, hura flotatzen ikusi arte.
2. Arrastatu oharra kortxoko kokaleku berrira, eta ukitu oharra konektatzeko.

Ohar bat ezabatzea

Aukeratu hauen artean:



- Kortxoan, ukitu ezabatu nahi duzun oharra, eta, gero, ukitu .
- Joan zerrenda-ikuspegira, sakatu ezabatu nahi duzun oharra segundo batzuetan, eta, gero, ukitu **Eliminar**.

Ohar-multzo bat ezabatzea

1. Nota pantailan, ukitu  oharrak zerrenda-ikuspegian ikusteko.
2. Ukitu .
3. Hautatu ezabatu nahi dituzun oharrak, eta, gero, ukitu **Listo**.


Argazki-editorea

Zure argazkiek ukituren bat behar dute? Erabili argazkiei ukituak egiteko argazki-hobekuntzetako bat. Jatorrizko argazkiak ez dira aldatzen. Fitxategi berri gisa gordetzen dira aldaketak egin eta gero.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **HTC Hub**.
3. Ukitu **Obtener más**.
4. Ukitu **Editor de Fotos**.
5. Ukitu **Elegir imagen**.
6. Ireki editatu nahi duzun argazkia dagoen albuma, eta, gero, ukitu argazkia.
7. Mugitu hatza ezkerreko pantailaren goiko aldetik, argazkiari aplikatu nahi diozun efektua hautatzeko.
8. Ukitu  Argazki hobetua **Imágenes guardadas** izeneko beste album batean gordeko da.

Soinu-efektuak


Lor ezazu soinu inguratzailearen sentsazioa telefonoan bideoak ikustean edo musika entzutean.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **HTC Hub**.
3. Ukitu **Obtener más**.
4. Ukitu **Efectos de sonido**.
5. Ukitu **Audio y Vídeo**, erabili nahi duzun soinu-aukera ezartzeko. **Sin efectos, Dolby Mobile** edo **Efecto SRS** dauzkazu aukeran. Audiorako, kable bidezko entzungailu bat erabiltzen baduzu, aurrez zehaztutako zenbait ekualizatzaile-doikuntza dauzkazu aukeran. (Dolby, SRS eta ekualizaitzailea ezin dira erabili Bluetooth entzungailu estereoaren erabiltzean).



Balioak

Lor itzazu jarraitzen ari zaren burtsa-baloreen eguneratzeak.

Zure baloreen berri jakitea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **HTC Hub**.
3. Ukitu **Obtener más**.
4. Ukitu **Valores**.
5. Ukitu balore bat haren burtsa-historia ikusteko. Mugitu hatza balore-zerrendan gorantz gehiago ikusteko.


Burtsako kotizazio bat edo burtsako adierazle bat gehitzea

1. Valores pantailan, ukitu .
2. Sartu burtsako kotizazioa edo adierazlea testu-eremuan, eta, gero, ukitu .
3. Emaitzen zerrendan, ukitu gehitu nahi duzun burtsako kotizazioan edo adierazlean.

Burtsako kotizazio bat edo burtsako adierazle bat ezabatzea

1. Valores pantailan, ukitu ... > **Editar**.
2. Ukitu ezabatu nahi duzun elementuaren ondoko zirkulu gorria.
3. Ukitu **Listo**.

Burtsa-zerrendaren ordena aldatzea

1. Valores pantailan, ukitu ... > **Editar**.
2. Sakatu  hainbat segundotan, lekuz mugitu nahi duzun elementuaren bukaeran. Lerroa nabarmenduta ageri denean, arrastatu kokaleku berrira, eta, gero, han askatu.
3. Ukitu **Listo**.

Aplikazio gehiago

Microsoft Office Mobile 2010


Microsoft® Office-ren hub-ak aplikazio hauek ditu:

- Microsoft OneNote Mobile 2010en bidez, etxeko, eskolako edo lantokiko gauza guztien jarraipena egin dezakezu: zure burutazio garrantzitsuak, erosketa-zerrenda, bileren oharak, proiektuak... nahi duzuna.
- Microsoft® Word Mobile 2010en bidez, dokumentuak sor eta edita ditzakezu zure telefonoan.
- Microsoft® Excel® Mobile 2010en bidez, Exceleko kalkulu-orriak sor, ikus eta edita ditzakezu zure telefonoan.
- Microsoft® Word Mobile 2010en bidez, diapositiba-aurkezpenak ikus eta edita ditzakezu zure telefonoan (ez sortu).
- SharePoint-en langunearen bidez, Microsoft SharePoint Server 2010en biltegitratutako dokumentuak ikus, edita eta deskarga ditzakezu.



Gaur egun, ezin da kopiatu Office-ko dokumenturik ordenagailutik zure telefonora. Zure ordenagailuan Word, Excel edo PowerPoint-eko dokumentuak izan nahi badituzu, bidali fitxategi erantsi gisa telefonoan konfiguratu dituzun posta elektronikoko kontuetatik. Gero, fitxategi erantsia uki dezakezu telefonoan irekitzeko. Posta elektronikoko kontu bat nola konfiguratu jakiteko, begiratu “Kontu bat konfiguratzeari”, “Lehen urratsak” kapituluari.


Microsoft Office Mobile erabiltzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Office**.
3. Hautatu erabili nahi duzun Office-ko aplikazioa: Office-ko gainerako aplikazioak ikusteko, mugitu ezkerredera.

Windows Marketplace

Windows® Marketplace-n, erraza da zure beharretara egokitzen diren aplikazio berriak, jokoak eta musika deskargatzea eta eskuratzea, eta, horrela zure telefonoa ahalik eta gehiena pertsonalizatzea. Kalitate goreneko doako programen aukera zabal bat dago, hasi jokoetatik eta aplikazio komertzial ahalsuetaraino. Aurrebista ikusi eta kantua erosi ere egin dezakezu Marketplace-n.

Marketplace zure telefonoan irekitzeko, ukitu  hasierako pantailan, eta, gero, ukitu **Marketplace**.



Jokoak

Hasi saio Xbox Live®-n, eta nahi beste joko izango dituzu aukeran. Zure telefonoan Juegos irekitzeko, ukitu Juegos tesela hasierako pantailan.




Segurtasuna


SIM txartela PIN batekin babestea

Zure telefonoari beste segurtasun-maila bat gehitzeko, esleitu PIN bat (identifikazio-zenbaki pertsonala). Jarraitu aurretik, ziurtatu SIM txartelaren PIN lehenetsia duzula (mugikorreko operadoreak eman zizuna).

1. Hasierako pantailan, ukitu Teléfono tesela.



2. Ukitu ... eta, gero, ukitu Configuración de llamada.



3. Sakatu **Seguridad de SIM** ataleko pizte/itzaltze etengailua.
4. Sartu SIM txartelaren PIN kodea, eta, ondoren, sakatu **Intro**.
5. SIM txartelaren PIN kodea aldatzeko, ukitu **Cambiar código PIN de SIM**.



Larrialdi-deiak edozein unetan egin daitezke, PIN zenbakirik sartu behar gabe. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus "Telefono-deiak" kapituluko "Larrialdi-dei bate egitea" atala.


Blokeatuta dagoen SIM txartel bat berrezartzea

PIN kodea sartzeko saiakera-kopurua gainditzen baduzu, SIM txartela blokeatu egingo da, eta PUK kodea eskatuko dizu. Kasu horretan, PUK kodea behar duzu telefonorako sarbidea berrezartzeko. Seguru aski, mugikorreko operadoreak SIM txartelarekin batera eman zizun kode hori.

1. Markatzeko pantailan, sartu PUK kodea, eta sakatu **Intro**.
2. Sartu erabili nahi duzun PIN kode berria, eta sakatu **Intro**.
3. Sartu berriro PIN kode berria, eta sakatu **Intro**.

Telefonoa pasahitzarekin babestea

Telefonoaren segurtasun gehiago emateko, pasahitza eskatuko dizu telefonoa pizten den bakoitzean edo modu etenetik aktibatzen den bakoitzean (pantaila itzalita dago).

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > bloquear > fondo de pantalla**.
3. Ukitu **pasahitzaren** pizteko/jitzaltzeko etengailua.
4. Sartu pasahitza **Nueva contraseña** laukian eta **Confirmar contraseña** laukian.
5. Ukitu **Listo**.

Telefonoa webgunetik babestea

Telefonoa galtzea amesgaizto bat izan daiteke, batez ere informazio garrantzitsua badu. Zorionez, www.windowsphone.live.com gunera sartzen bazara ordenagailuan, zure telefonoa non dagoen jakin dezakezu, blokeatu egin dezakezu, joarazi egin dezakezu eta zure telefonoko edukiak ezaba ditzakezu web-nabigatzailetik.

Bi gauza izan behar dituzu kontuan: Lehenik eta behin, www.windowsphone.live.com gunera sartu aurretik, ziurtatu saioa hasi duzula telefonoko Windows Live-ko kontuan. Bigarrenik, ziurtatu Windows Live-ko saioa itxi duzula ordenagailuan (ID bera dute telefonoko kontuak eta ordenagailukoak).




Ordenagailuko web-nabigatzailetik zure telefonoa aurkitzeko eta kontrolatzeko, ziurtatu telefonoa Internetera konektatua dagoela (WiFi konexioaren bidez edo datu-konexio baten bidez).

Doikuntzak

Zure telefonoaren doikuntzak

Telefonoaren doikuntzak Configuración pantailan kontrolatzea eta personalizatzea.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **.Configuración**.
3. Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera sistemara sartzeko edo aplikazioaren doikuntzetara sartzeko.

Sistemaren konfigurazioa

tonos de timbre y sonidos	<ul style="list-style-type: none"> • Aktibatu edo desaktibatu soinua eta bibrazioa. • Aukeratu telefonoaren txirrin-tonuan eta jakinarazpenetan erabili nahi dituzun soinuak. • Aukeratu zein gertaeretan erabiliko den jakinarazpen-soinua,
tema	Zehaztu mahaigainaren atzealdea eta kontrastearen kolorea.
modo avión	Aktibatu edo desaktibatu hegazkin modua
Wi-Fi	Konfiguratu WiFi konexioa.
Bluetooth	Kudeatu Bluetooth konexioak.
correo electrónico y cuentas	Konfiguratu Windows Live, Outlook (Exchange ActiveSync), Facebook eta bestelako kontuak. Kontuak konfiguratuta aukera izango duzu zure telefonoan kontu horietako informazioa sinkronizatzeke.
bloquear y fondo de escritorio	Aldatu blokeo-pantailaren atzealdea, ezarri pantailaren itxarotedenbora eta konfiguratuz telefonoarentzako pasahitz bat.
ubicación	Aukeratu onartu nahi duzun ala ez zure telefonoko aplikazioak zure uneko kokalekua jakitea.
datos móviles	Itzali edo piztu datu-konexioa, aukeratu datu-desplazamendua gaitu nahi duzun ala ez eta erantsi/editatu datu-konexioaren APNa.
fecha y hora	Aukeratu data eta ordua eskuz edo automatikoki zehaztu nahi dituzun, eta aukeratu ordua agertzeko modua.
brillo	Zehaztu pantailaren distira.
teclado	Aukeratu pantailako teklatuaren aukerak.
región e idioma	Zehaztu informazioa erakusteko eta bilatzeko erabili nahi duzun eskualdeko formatua.
voz	Aukeratu ahotsaren aukerak, telefonoarekin interakzioan aritzeko.
buscar mi teléfono	Ez baduzu Windows Live-ko kontu batean saioa hasi, konfiguratuz telefonoa web-nabigatzailearekin komunikatzeko. Saioa hasi baduzu, aldatu zure telefonoa aurkitzeko doikuntzak.
actualización de teléfono	Aukeratu eguneraketa bat eskuragarri dagoenean jakinaraztea nahi duzun ala ez eta eguneraketak bilatzeko modua.


acerca de	Egiaztatu zure telefonoari buruzko informazioa. Fabrikako berrezarpen bat ere egin dezakezu zure telefonoan.
comentarios	Aukeratu telefonoak Microsoft-era iruzkinak bidaltzea nahi duzun ala ez eta bidaltzean datu-konexioa erabiltzea baimentzen duzun ala ez. Usar la conexión de datos de mi móvil hautatzen baduzu iruzkinak bidaltzeko, baliteke tarifa osagarriak ordaindu behar izatea iruzkinen bidalketa aktibatzen bada.

Aplikazioaren doikuntzak

Egiaztatu edo aldatu zure telefonoko aplikazioen doikuntzak. Ukitu aplikazioaren izena zein doikuntza dituen ikusteko.


Pantailaren doikuntzak aldatzea

Pantailaren distira eskuz doitzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Brillo**.
3. Itzaltzeko, sakatu **Ajustar automáticamente** ataleko pizte/itzaltze etengailua.
4. Hautatu erabili nahi duzun **maila**.

Pantaila itzali aurretik igaro behar den denbora doitzea

Tarte batean ez bada erabiltzen, telefonoaren pantaila itzali egiten da, bateriaren energia gordetzeko. Pantaila itzali aurretik telefonoa erabili gabe zenbat denbora egongo den konfiguratu egin daiteke.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > bloquear > fondo de pantalla**.
3. Ukitu **Apagar pantalla** laukia, eta, gero, hautatu pantaila itzali aurretik igaro behar den denbora.

Soinuaren doikuntzak aldatzea

Aldatu isilik modutik eta bibrazio modura, eta alderantziz

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Tonos de timbre y sonidos**.
3. Bibragailua itzaltzeko, sakatu **Vibrar** ataleko pizte/itzaltze etengailua.


Bibrazio modua aktibatuta dagoenean, telefonoa bibrazio modura pasatuko da soinuaren bolumena hutseraino jaisten baduzu. Bibrazio modua desaktibatua badago, telefonoa isilik modura pasatuko da soinuaren bolumena hutseraino jaisten baduzu.

Isilik moduaren, bibrazio moduaren eta modu arruntaren artean aldatzea

- Modu arruntetik bibrazio modura edo isilik modura aldatzeko, sakatu BOLUMENA JAISTEKO botoia bolumen-maila hutseraino iritsi arte.
- Berrito modu arruntera aldatzeko, sakatu BOLUMENA IGOTZEKO botoia.

Jakinarazpenen soinua aukeratzea

Zuk nahi duzun soinua aukeratu dezakezu jakinarazpenetarako.


1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Tonos de timbre y sonidos**.
3. Ukitu aldatu nahi duzun kontrol-laukia, eta aukeratu erabiliko duzun soinua.

Zure telefonoari buruzko informazioa egiaztatzea

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Información**.

Telefonoaren hizkuntza aldatzea

Telefonoa lehen aldiz aktibatzen duzunean, erabili nahi duzun hizkuntza aukeratu behar duzu. Telefonoa erabili ahala ere alda dezakezu hizkuntza. Hizkuntza aldatzean, teklatuaren antolamendua, dataren eta orduaren formatua eta abar doitzen dira. Telefonoaren bertsioaren arabera hizkuntza desberdinak izango dituzu erabilgarri.


1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Región de idioma**.
3. Ukitu Idioma laukia, eta hautatu nahi duzun hizkuntza.
4. Ukitu **Pulsa aquí para aceptar los cambios y reiniciar el teléfono**.

Eguneratzea eta berrezartzea

Telefonoaren softwarea eguneratzea

Aldian behin, zure telefonorako eguneraketak egongo dira eskuragarri. Telefonoak eguneraketa dagoela egiaztatu, eta abisatu egingo dizu.

Telefonoa konfiguratzeko, eguneraketa bat eskuragarri dagoenean abisatzeko

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Actualización del teléfono**.
3. Hautatu **Notificarme cuando se encuentren nuevas actualizaciones** kontrol-laukia.
4. Aukeratu datu-konexioa erabili nahi duzun ala ez eguneraketak bilatzeko.

Eguneraketa bat dagoela abisatzen dizunean, konektatu telefonoa ordenagailura USB-kablearen bidez, Zune-ren softwarearen bidez eguneraketa deskargatu eta instalatzeko.



Ordenagailuak Internetera konektatuta egon behar du eguneraketa deskargatzeko.

Telefonoa berrabiaraztea edo fabrikako berrezarpena egitea

Telefonoak ez badu erantzuten edo motel badabil, berrabiaraz ezazu, lagungarri den ikusteko. Telefonoak konpontzen ez den arazo bat badu, egin fabrikako berrezarpena azken baliabide gisa.

Telefonoa berrabiaraztea (softwarea berrezartzea)

Telefonoa motel badabil, aplikazioen batek ez badu behar bezala funtzionatzen edo telefonoak ez badu erantzuten, saiatu telefonoa berrabiarazten, ea horrela arazoa konpontzen den.

Telefonoa berrabiarazteko, itzali eta piztu berriro. PIZTEKO botoia segundo batzuek sakatzean ez badu funtzionatzen, kendu bateria, itxaron segundo batzuk, eta sartu berriro. Jarraian, piztu telefonoa.


Fabrikako berrezarpena egitea (hardwarea berrezartzea)

Telefonoa beste pertsona bati utzi behar badiozu edo telefonoak konpontzen ez den arazo bat badu, fabrikako berrezarpena egin dezakezu (hardwarearen berrezarpena). Horrela, lehen aldiz piztu aurreko egoerara itzuliko da telefonoa.

Urrats hori ez da arinkeria eman beharreko pausoa. Datu eta doikuntza pertsonalatuak betiko ezabatuko ditu, eta deskargatu eta instalatu dituzun aplikazio guztiak ezabatuko ditu. Fabrikako berrezarpena egin aurretik, ziurtatu gorde nahi dituzun datu eta fitxategien segurtasun-kopia egin duzula.

Fabrikako berrezarpena egitea doikuntzen bidez

Telefonoaren doikuntzen bidez egiten da errazen fabrikako berrezarpena.

1. Hasierako pantailan, ukitu .
2. Ukitu **Configuración > Acerca del teléfono**.
3. Ukitu **Restablecer su teléfono**, eta, gero, **Sí**.

Fabrikako berrezarpena egitea telefonoaren botoien bidez

Ezin baduzu telefonoa piztu eta ezin bazara doikuntzetara sartu, aukera izango duzu telefonoaren botoien bidez fabrikako berrezarpena egiteko.

1. Telefonoa itzalita dagoela, sakatu segundo batzuek BOLUMENA IGOTZEKO eta JAISTEKO botoiak, eta, gero, sakatu PIZTEKO botoia.
2. Itxaron fabrikako berrezarpenaren argibideak pantailan agertu arte, eta, gero, askatu BOLUMENA IGOTZEKO eta JAISTEKO botoiak.
3. Jarraitu pantailako argibideei zure telefonoan fabrikako balio lehenetsiak berrezartzeko.

Marka komertzialak eta eskubide intelektualak

Copyright © 2010 HTC Corporation. Eskubide guztiak erreserbatuta.

HTCren logotipoa, HTC quietly brilliant-en logotipoa, HTC HD7 eta HTC Care HTC Corporation-en marka komertzialak eta/edo zerbitzu-markak dira.

Microsoft, Windows, Windows XP, Windows Vista, Windows Phone, Windows Marketplace, Outlook, Zune, Bing eta Xbox Microsoft Corporation-en marka erregistratuak edo komertzialak dira Estatu Batuetan eta/edo beste herrialde batzuetan.

Google Inc. enpresaren marka da Google.

Bluetooth SIG, Inc.-ren marka komertzialak dira Bluetooth eta Bluetooth-en logoa.

Fidelity Alliance, Inc.-ek erregistratutako marka komertziala da Wi-Fi Wireless.

Java, J2ME eta Javaren beste produktu batzuk Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo marka erregistratuak dira AEBn eta beste herrialde batzuetan.

Facebook Facebook, Inc.-en marka erregistratua da.

Dolby Mobile Dolby Laboratories-en marka komertziala da.

Dokumentu honetan aipatutako gainerako enpresa, produktu edo zerbitzuak marka komertzial gisa, marka erregistratu gisa edo zerbitzu-marka gisa hartuko dira, eta bakoitza dagokion jabearena da.

HTCk ez du eskuliburu honetan ager daitezkeen akats tekniko edo akats editorialez edo hutsegiteez erantzukizunik izango, ez eta ustekabeen izandako kalteez edo material honi segimendua egiteagatik gerta daitezkeenez ere. Informazioa dagoen bezala ematen da, inolako bermerik gabe eta aldaketak izan ditzake aurrez jakinarazi gabe. Halaber, HTCk dokumentu hau edozein unetan eta aurrez abisatu gabe berrikusteko edo merkatutik kentzeko eskubidea dauka.

Dokumentu honen zati bat ere ezin da inolaz ere erreproduzitu edo transmititu, inolako baliabiderik erabiliz (elektronikoa edo mekanikoa), ezta fotokopiatu, grabatu edo inolako berreskuratze-sistematari gorde ere; era berean, ezin da itzuli inongo hizkuntzatarara, HTCk aurrez baimen idatzirik ematen ez badu.

Aurkibidea

A

- Argazki bat gerturatzea edo urruntzea 54
- Argazkia ateratzea 51
- Argazkiak ateratzea 51
- Argazkiak eta bideoak ikustea 54
- Argazkiak eta bideoak posta elektronikoz bidaltzea 54
- Atzeko tapa kentzea 8

B

- Bateria 10
- Bateria kentzea 10
 - Bateria nola kargatu 11
 - Bateria nola sartu 10
- Beheko estalkia 8
- Beheko estalkia berriro jartzea 8
- Beheko estalkia kentzea 8
- Bideoa grabatzea 51
- Bideoak 54
- Bideoak grabatzea 51
- Bilatzea 17
- Bing Maps 59
- Bisore-pantaila (kamera) 50
- Blokeo-pantailaren atzealdea 15
- Bluetooth-a 48
 - entzungailua eta autorako kita konektatzea 48
- Bolumena 16
 - Bozgorailua 21

D

- Datu-konexioa 43
- Dei bat amaitzea 22
- Dei bat zain uztea 21
- Deiak 22
- Deiak txandakatzea 21
- Deiaren egilearen IDa 20
- Dei-zerbitzuak 23

E

- Egutegia 39
 - hitzordua sortzea 39
 - gonbidapen bat bidaltzea 40
- Euskarria erabiltzea 12
- Exchange ActiveSync 34

F

- Fabrikako berrezarpena 75
- Facebook
 - argazkiak partekatzea 55
- Flash (kamera) 51

H

- Hasierako pantaila 13
- Hatzaren mugimenduak 12
- Hegazkin modua 23
- Hegazkin-modua 23
- HTC Hub 63
- Hub-ak 14
- Hurbiltzea/Urruntzea
 - web-nabigatzailea 46

I

- Irudia duten mezuak bidaltzea 32
- Irudiak 53

J

- Jakinarazpenen soinuak 74

K

- Kamera 50
 - Kamera gerturatzea eta urruntzea 50
- Kokapen-zerbitzuak 59
- Konexioaren konfigurazioa 43, 64
- Konfigurazioa 72
- Kamera 52
- Kontaktu baten informazioa editatzea 26
 - Kontaktu berri bat gehitzea 25
- Kontaktuak 24, 25

Kontaktuak bilatzea 27
 Kontaktuak ezabatzea 27
 Kontaktuaren informazioa konbinatzea 26
 Kontaktuaren informazioa lotzea 26
 Kontu bat konfiguratzea 17

L

Laguntza 7, 12

M

Mapak 59
 Marketplace 69
 Mezuak 31
 Mikrofonoa isilaraztea 22
 Modu etena 14

N

Nabigatzailea 45

O

Office Mobile 68
 - Piztea eta itzaltzea 11

P

POP3/IMAP 34
 Posta elektronikoa 34
 - POP3/IMAP kontua 34
 - ezabatzea 35
 - bidaltzea 36
 - argazkiak eta bideoak bidaltzea 54
 - Exchange ActiveSync 34

PUKa 70

S

Sarbide-puntua 43
 Sare mugikorreko konexioa 43
 Sarrerako dei bati erantzutea 20
 Sarrerako dei bati uko egitea 20
 SIM txartela 9
 -Kontaktuak inportatzea 26
 SIM txartela kentzea 9
 SIM txartela nola sartu 9
 SIM txartela PIN batekin babestea 70
 SkyDrive
 -Argazkiak kargatzea 55

SMS 31
 Soinuaren bolumena 16

T

Teklatua 29
 - Kurtsorea mugitzea 29
 Telefonoa konektatzea edo deskonektatzea 11
 Telefonoa lehen aldiz konfiguratzea 13
 Telefonoa piztea eta itzaltzea 11
 Telefonoa
 - SOS dei bat egitea 19
 - Telefonoaren markatzailea 19
 - Atzeko, ezkerreko, eskuineko eta
 - aurrealdeko panelak 6
 - Deiak egitea 19
 Telefonoarekin interakzioan ibiltzea, hitz eginez 17
 Telefonoaren hizkuntza aldatzea 74
 Telefonoaren softwarea eguneratzea 75

Telefono-konferentzia 21
 Teselak 13
 Testu prediktiboa 30
 Testu-mezu bat bidaltzea 31
 Testu-mezua 31
 Txirrin-tonua aldatzea 18

W

Web nabigatzailea 45
 WiFi-a 44

Y

Yo tesela 27

Z

Zune 56
 Zure ordenagailua eta telefonoa sinkronizatzea 56
 Zure SIM txartetik kontaktua inportatzea 26
 Zure telefonoari buruzko informazioa
 egiaztatzea 74



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008